

hiruka

183. zenbakia
2022ko maiatza

UMORE AZOKA Leioa

Kaleko arteak deskubritzeko abagunea



MAIATZA

PROGRAMAZIOA

ANTZERKIA



ERRESUMA / KINGDOM / REINO
Arriaga Produksioak

MAIATZAK 6 OSTIRALA 19:30 / 21€


MUSIKA



OLATZ SALVADOR
Aho uhal

MAIATZAK 14 LARUNBATA 19:30 / 10€

HAURRAK



LOOP
Aracaladanza

MAIATZAK 22 IGANDEA 18:00 / 8€

ANTZERKIA



KOPAZ KOPA
Ados Teatroa

MAIATZAK 27 OSTIRALA 19:30 / 12€



94 466 01 23
kulturetxea@getxo.eus
www.getxo.eus



SALMENTA
Kutxabank sarean
MUXKOBARRI (94 466 01 23)
Romo Kultur Etxea (94 466 00 22)



Aurkibidea

- 4 Puntua eta kontrapuntua
- 5 Erretratua
- 12 Euskarari, atara kontuk!
- 13 Begia eta bisturia
- 14 Hirudika: Gertuko begirada koloretsua
- 20 Lehen/orain eta Uribitakora
- 22 Umore Azokako koordinatzaile Alberto Garciagaz solasaldia
- 26 Getxophoto, ekainaren 2tik 26ra aurretik
- 27 Patrizia Vitelli ekintzaile gastronomikoa
- 28 Agenda
- 29 Hezkuntzako gehigarri berezia
- 37 Musikhariak: Revertt
- 38 Gaubeka, Urrutia eta Madariaga, Lemoizko pala-jokariak
- 39 Bizkerre Futbol Taldea, txapelduna
- 40 Iritziak eta horoskopoa
- 41 Usategi
- 42 Argazkilariaren txokoa
- 44 Hirukira Olgetan: umeentzako denbora-pasak
- 47 Zozketak



hiruka

HIRUKA kooperatiba elkartea

Helbidea: Martikoena, 16, 2.a · 48992 GETXO
e-posta: hiruka@hiruka.eus
Posta-kutxa: 171
Telefona: 944 911 337
Publizitatea: Maria Gorostiola
Erredakzioa: Iker Rincon Moreno, Hodei Torres eta Ander Zarraga
Diseinua: Artefakto
Kudeaketa eta administrazioa: Ziortza Merino
Zenbaki honetako kolaboratzaileak: Zelai Nikolas, Aitor Garagarza, Julen Nafarrate, Joanes Atxa, Ina Gastaka, Asier Barruetaña, Nerea Falagan, Zapustu taldea eta Joseba Santxo
Filmazioa eta Inprimategia: Gertu Inprimategia
Lege-gordailua: BI-2022-2014
ISSN: 2386-98-95
Ale-kopurua: 5.000
CC-BY-SA

Erakunde laguntzaileak



Bizkaia
*foru aldundia
diputación foral*

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

Kultura eta Hizkuntza Politika
Sailak (Hizkuntza Politikarako
Sailburuordetza) diruz lagundua.

Gailurra zain

ZELAI NIKOLAS EZKURDIA Gure Esku



Ba al zenekien uztailaren 2an katalanek eta euskaldunok elkarlanean Pirinioetako (Añamendietako) 300 gailur baino gehiago argiztatuko ditugula? Ekimen hau bi urte luzez partekatutako gogoetaren ondorio da: garaia da euskaldunok eta katalanak elkartasunetik elkarlanera pasatzeko. Jabetu gara elkarrekin jardunez bakarrik lortuko dugula #SpainGate atzean dagoen demokrazia-gabezia larriari irtenbide politiko egokia ematea, Espainiako beste lurraldeetatik demokrazian sakontzea eskatzen dutenekin ere indarrak bilduz.

Errepublika garaitik, gutxienez, ari gara euskaldunak eta katalanak elkarrekin eskatzen Espainiako Estatuari demokratikoki gure borondateak errespetatu ditzan. Azken 80 urteetan, maiz adierazi diogu elkartasuna elkarri, Espainiako errepresioaren aurrean. Baina nekatu gara, eta ez gaude amore emateko prest. Jabetu gara askatasunez erabakitze bidea elkarrekin argiztatu behar dugula, eta hautetsontziak direla bide horretan dugun tresnarik eraginkorrena.

Eskoziarrek 2023an egingo dute independentziari buruzko bigarren erreferenduma. Guk uztailaren 2an Pirinioak argiztatuko ditugu. Zer izango gara gai egiteko hortik aurrera? #PirinioetakoBidea #GailurraZainDugu.

Basakeria eta maiatzak 14

AITOR GARAGARZA



Ekuadorreko kostaldean badago probintzia bat, Esmeraldas, gainontzeko probintziekin alderatua berezitasun propioa duena: biztanle ia gehienak arbasoak afrikarrak izan ziren. Historialariek diote XV. mendean Afrikatik esklaboz beteta zetorren itsasontzi bat Esmeraldaseko kostaldean naufragatu zuela, eta tripulazioaren parte handi bat ontzitik igerian lurra eta askatasuna irabazi zuela. Alonso Illescas ilustratua, Espainian esklabo izandakoa, bilakatu zen haien buru. Ondoren, herrialdean barneratzean, bertako tribu indigenak menderatu zituzten; horiek *malaba*, *malo*, *diablo* edo *juyungo* deitzen zieten beltzei. Basakeria.

Ekuadorko hiriburuan kale bat dago, Ingalaterra kalea, eta bertan Plentzia (EH), Espainia eta herrialde horren historiak bat egiten dute, liburu handietan agertuko ez dena. Alfonso Etxegaria, plentziarra, Ipar Euskal Herriatik deportatu ostean, Ekuadorrera bidali zuten. Ingalaterra kaleko etxe batean bahitua zegoela Miguel Angel Aldanarekin batera, 1985ean, Polizia Espainolek torturatu zituzten. Basakeria.

Basakeriara kondenatuak gaude? Basakeriatik alden-tzen gaituzten zirrikituak ireki ditzagun. Euskal Errepublika da bide sinesgarri bakarra, maiatzaren 14rako prest.

Puntua eta kontrapuntua **Euskara unibertsitatean**

Asko dugu egiteko!

*Batxilergoraino zan
euskaraz jarduna,
unibertsitatea
ordea erdalduna.
Aldaketen garaia
izan zan iluna,
lortuz EHUren
siglen erantzuna:
Euskal Herrikoa ta
baita euskalduna!*

PERU
DE PEDRO
LARREA
Gorliz

*Unibertsitatean
oraindik hobeto
egon behar genuke
neurriak tarteko...
Ta Lanbide Heziketan
ere trabaz lepo
daude milaka gazte
euskaraz hezteko,
oraindik ere asko
dugu egiteko!*

ARRATE
ILLARO
ETXEBARRIA
Getxo



Darak Abdelfatah Ujsario elkarteko bozeramailea

«Ezin badugu amestu, ez diegu lorik egiten utziko»



Algortan bizi den ekintzaile sahararra Ujsario gazte elkarteko bozeramailea da. Bere herriak bizi duen egoera gordina lau haizetara zabaldu gura du.

TESTUA: JULEN NAFARRATE ►

Nire aberria gure amak kontatzen zizkigun istorioetan bakarrik imajinatzen dut». Berba horiek Darak Abdelfatah ekintzaile sahararrarenak dira. 28 urteko gaztea Aljeriako errefuxiatu-kanpamenduetan jaio zen, eta bere herriaren autodeterminazioaren alde borrokan ari den arren, ez du sekula Mendebaldeko Sahara zapaldu. Hori da hango gazte askoren errealitatea: «2018. urtean bertara bidaiatzekotan egon nintzen, baina deportatu ninduten. Oso zaila da defendatzea ezagutzen ez duzun zerbait, baina zure barnean sentitzen duzuna da».

Darak Algortan bizi da gaur egun, eta Ujsario gazte elkarteko bozeramailea da. Zientzia politikoak ikasi ditu,

eta Nigerian masterra amaitu ostean, buru-belarri ari da militantzia politikoan; Europako Gazte Sozialisten lehen-dakariordea ere bada. Horregatik, besteak beste, utzi zituen kanpamenduak: «Oso zaila da atzerriko herrialde batean bizitzea, baina gure herria askatu behar badugu, gure mezua lau haizetara zabaldu behar dugu, eta hori egitea oso zaila da kanpamenduetatik. Ez da aukera bat, gure ardura da». Txikitan etorri zen Algortara lehenengo aldiz, Oporrak Bakean programari esker. Euskal Herrian etxean bezala sentitzen dela dio: «Sahararra naizen arren, nire jendearen artean nagoela sentitzen dut».

Espainiako Gobernuak hartutako azken erabakiagaz oso kritiko agertu da Darak: «Ez genuen besterik espero. Hori da espainiar Estatuarengandik jasoko dugun gauza bakarra: traizioa. Ez dira fidatzekoak». Hala ere, egoera zaila den arren, baikor agertu da gaztea, giltza saharar guztien esku dagoela uste baitu: «Espainiak ez du gure herriaren etorkizuna erabakiko, guk behartuko ditugu jarrera aldatzera. Ezin badugu amestu, ez diegu lorik egiten utziko». ◀

Bueltan datozen festak Andra Marira!

Pandemiak eragindako etenaldiaren ostean, indarberrituta datozen sanisidroak. Jai-batzordeak ahalik eta egitaraurik osatuena sortu du, denen gozamenerako.

Urte biko etenaldiaren ostean, indarrez beteta datozen bueltan Getxoko Andra Mariko sanisidroak. Jai-batzordeko kideek azaldu dutenez, pandemiak eragindako hutsunea berreskuratzeko gogo eta ilusio handiz lanean ibili dira hila-beteotan, «gauza batzuk erdi ahaztuta, baina berriro martxa hartuta». Horretarako, auzoko herritar eta eragile askogaz elkarlanean ibili dira, ahalik eta egitaraurik osoena osatu guran, «den-denok gogotsu gaude jaiak gure auzoan berriro izateko». Izan ere, askorentzat urte biko etenaldia gogorra izan den arren, pazientziatz beteta, pauso bat aurrera eman eta Getxoko lehenengo jaietz gozatzeko unea heldu dela gogoratu dute jai-batzordekoek. Aurtengo festen antolakuntza-lanetarako, gainera, jende berria batu zaiela goraipatu dute antolatzaileek; izan ere, azkenengo urteetan, larri ibili dira zereginotarako, eta jendea bila ibili dira auzoko festak aurrera eramateko.

Gogoratu dutenez, aurten ere autobus-zerbitzua egongo da, beraz, «ez dadila inor etortzerik gabe egon». <

Egitaraua

Maiatzak 7, zapatua

- 17:00** Kalejira, Malakatetik kiroldegira.
- 17:30** Umeen dantzaldia, aparkalekuan.

Maiatzak 12, eguna

- 17:30** Umeentzako ikuskizuna: Poxpo eta Lintxo!, Malakaten.
- 20:00** Kontzertuak: Nazka eta Los Puma Zeberio, aparkalekuan.

Maiatzak 13, barikua

- 17:00** Txupinazoa eta pregoia, Geroako ikasleen eskutik, Malakaten.
- 17:00** Eskupilota erakustaldia, kiroldegian.
- 17:30** Parkean olgetan, ume eta helduentzako jolasak, Malakaten.
- 17:30** Grafitiak eta musika, Maidagan kaleko horman, Lorea tabernan.
- 18:00** Skate tailerra, Ortzadar plazan.
- 18:30** Txokolatada, Itxas Argiak gertute, Malakaten.
- 19:00** Mus txapelketa, Lorea tabernan.
- 19:00** Buruhandiak, Malakaten.
- 20:00** Kalejira eta poteoa, Lorea tabernatik.

- 21:30** Kontzertuak: La Tokokera eta Urrats erromeria, aparkalekuan.

Maiatzak 14, zapatua

- 11:00** Toponimia ginkana txirrindulaz, Malakatetik hasita.
- 11:30** Umeentzako karting eta puzgarriak, Malakaten.
- 12:00** Herri kirolak, kiroldegian.
- 12:30** Fanfarria, Malakatetik aparkalekura.
- 15:00** Herri bazkaria, aparkalekuan.
- 19:00** Poteo girotua, Malakatetik aparkalekura.
- 21:00** Gazteentzako Dja, Malakaten.
- 21:00** XXVII. Herrien Jaialdia, Itxas Argiak gertute, kiroldegian.
- 23:00** Kontzertuak: Kai Nakai eta Nebula Selektah, aparkalekuan.

Maiatzak 15, domeka

- 10:00** Herri-azoka, aparkalekuan.
- 12:30** Bertso-saioa, aparkalekuan.
- 12:30** Kalejira, Malakatetik.
- 14:00** Kontzertua: Gibelurdinek, aparkalekuan.
- 17:30** Patinaje festibala, kiroldegian.
- 18:00** Umeentzako paintball-a, 6 urtetik aurrera, Elizako landan.



Berango Alconzako langileak borrokan

Ertzaintzak biolentzia erabili izana deitoratu dute

Lantegia martxan jartzea bermatzeko operatiboan, manifestari bi atxiki ditu Ertzaintzak; horietako bati desordena publikoak eta lesioak egotzi dizkiote.

Alconza lantegiko grebalariek hila-bete bi baino gehiago daramatzate greban euren lanpostuen eta Berango fabrikaren etorkizunaren defentsan. Ia denbora tarte horretan guztian, lantokiko makinak eta ateak itxita egon dira, Irizar Taldeak Alconza kudeatzeko ezarri duen Norgestion enpresak lantegia zabaltzea erabaki zuen arte. Hala, apirilaren 25etik aurrera, protestan ez dauden beharginak lanera joan dira egunez egun –apirilaren 29an izan ezik, ez zelako inor agertu–.

Horren aurrean, egunero-egunero, grebalariek piketeak egin dituzte euren desadostasuna eta aldarrikapenak plazaratzeko. Hala, tentsio-uneak errepikatu dira lehenengo egunetan Ertzaintzaren eta manifestarien artean. Ildo horretan, polizia autonomikoaren aldetik jasan dituzten mehatxuak, irainak eta kolpeak salatu dituzte: «Gure herrian bizi izan diren aurreko gatazketan ikusi dugunez (Tubacex, PCB...), poliziaren jazarpena eta errepresioaren bidez gure aldarrikapenak isilarazi nahi izan dituzte. Hau al da Eusko Jaurlaritzak aipatzen duen bitartekotza? Gure delitu bakarra da gure lanpostua defenditzea».


Egoera horren aurrean, Alconzako grebalariek Eusko Jaurlaritzari exijitu diote polizia lantegitik ateratzeko eta etorkizuna defendatzeko bitartekoak jar ditzala. Horri guztia-ri CCOO sindikatuaren jarrera aldaketa ere gehitu behar diotela gaitzetsi dute: «Enpleguaren eta Alconzaren etorkizunaren defentsa egitetik, kaleratzeak baliozkotzea, zuzendaritzarekin lerrokatzea eta eskirol batzuk izatera igaro dira».

Era berean, duela gutxi greban jarritako Adunako (Gipuzkoa) Irizar E-mobility enpresako lankideei ere babesa eta elkartasuna helarazi dizkiete Alconzako grebalariek, horiek ere, «lan-baldintza duinen alde borrokan ari baitira». ◀



Apirilaren 25etik 27ra bitartean, askotariko tentsio-uneak bizi izan dituzte.

Aldarrikapena
Kanporatutako 25 langileak berriz har ditzatela –guztira, 38 kaleratu gura ditu– eta Alconzaren enplegua eta etorkizuna bermatuko duen industria-planari ekiteko eser dadila eskatzen dute.



Leioa Lamiako Maskarada

«Askok, Maskaradari esker ezagutu dute Lamiako»

Kondairak, izaki mitologikoen musikak eta dantzek berriz ere hartuko dituzte Lamiako auzoko kaleak, eskualdeko jairik berezienetako baten itzulera.

ANDER ZARRAGA ►

Lamiak, Galtzagorri, Prudentzia, Aker, Inguma eta Lamiako Maskarada osatzen duten izaki mitologikoen berriz ere alaituko dituzte auzoko kaleak beraien magia, dantza eta abestiakaz. Maiatzaren 27an, bi urteren ostean, adarraren soinuagaz hasiko da jaialdia, beste behin. Orduan, Maiatzak kalejira gidatuko du auzoko kaleetatik, fanfarrea, erraldoiak, buruhandiak eta herritarrakaz dantzatzuz. Ondoren, Mari eta Sugaar gainontzeko izaki mitologikoen bila joango dira, gauean ospatuko den akelarrea gonbidatzeko. Iluntzean, Akelarrea egiteko elkartuko dira guztiak, eta Prudentziaren kondaira antzetzuko dute. Bukatzeko, Ieltxuk sua piztu eta horren inguruan guztiek dantzatu eta abestuko dute *Lamia Kantua*.

«Urte hauetan bertan behera gelditu dena ez da izan Maskarada bakarrik; Euskal Herriko jai guztiak egon dira etenda eta gu inguruan itzuliko garen lehenengoetarikoak izango gara, beraz, izugarria izango da», iragarri dute Arene Arbizuk eta Arkaitz Correak. Lamiako Maskarada antolatu eta koordinatzeaz arduratzen dira biak, eta ondo baino hobeto ezagutzen dute 1979an ospatzen hasi zen jaialdia, gaztetatik parte hartu baitute Maskaradan: «Bizitzako urte gehiago daramatzagu Maskarada barruan kanpoan baino». Hasieran, dantzari moduan parte hartzen zuten, baina, orain, antolakuntzaz arduratzen dira, beraiekaz batera boluntarioak diren beste hainbatek batera: «Gure lana jantziak eta maskarak zaintzea, entseguak antolatzea, egun horretan dena ondo joatea eta Leioako Udalgaz hartu-eman izatea da», azaldu du Arbizuk.

Duela 43 urte jaio zen ospakizuna antzerki soil bat baino askoz gehiago dela azpimarratu dute antolatzaileek: «Gure historia eta



Arkaitz Correa eta Arene Arbizu maiatzaren 27an erabiliko dituzten maskarakaz.

Kondaira

Maitasun-istorio batean dauka jatorria Maskaradak eta Lamiako auzoaren izenak, Prudentzia gaztearena, hain zuzen ere. Neska Martin izeneko mutil batek ezkondu zen, baina Inaxio bien semea jaio aurretik senarra zuhaitz batetik erori eta hil egin zen. Inaxio hazi zen, eta adina izan zuenean nabigatzera joan zen, ama bakarrik utzita. Prudentzia hain atsekabetuta geratu zen Martin lurperatuta zegoen zuhaitzaren azpian uzkatuta eseri zela. Denbora bat igarota, zerumugan bela zuri bat ikusi zuen eta semea zela pentsatu zuen, baina ez. Prudentziak izugarritzko nahigabea sentitu eta etxera joan zen, baina ihitzetatik pasatzean bihotza gelditu zitzaion. Prudentzia hil zenean, lamiak kantua entzun zen, eta haietako bat bihurtu zela esaten da. Ordutik aurrera, Ondizeko ihitzei Lamiako hondartza deitzen zaie.

kultura kontatzen duen festa da, Lamiakoko sustraietara hurbildu eta herri honetako biztanleen izaeraren jatorria ezagutzera ematen duena, hain zuzen».

Diotenez, jarraikotasuna bermatuta dago, belaunaldi berriak ere joan direlako sartzen eta hutsuneak bete direlako: «Sartu direnetako batzuek beraien gurasoen aurretik egindako pertsonaia bera errepikatzen dute; adibidez, aurtan, Mari eta Maiatza egingo dutenen gurasoen pertsonaia berak egin zituzten duela hainbat urte. Gurasoengandik seme-alabetara pasatzen doan gauza bat da». Beraz, belaunaldi-txandaketa bermatuta dutela baieztatu dute, 2019an txikiak ziren parte hartzaileak hazi egin direlako eta gaztetxoagoak ere sartu direlako aurtan.

Berritasun gisa, ohiko pertsonaia mitologikoei Tartalo ere gehituko zaiela kontatu dute; «horretaz gain, hainbat jantzi ere berrituko ditugu, batzuk oso zahartuta zeudelako».

Horretaz gain, ospakizunaren izaera ere argi mantenduko dutela azpimarratu du Arbizuk: «Noizbait proposatu digute Maskarada Leioako sanjoanetara eramatea, baina ez, sortu zutenek ere argi eta garbi adierazi zuten Lamiako Maskarada ez zela hemendik aterako, gu ez baikara antzerki konpainia bat. Ez dauka zentzurik Lamiakotik ateratzea». ◀

Erendio Tartanga Berdea

Sinadura-bilketa egingo dute 400 etxebizitzaren proiektua geldiarazteko

Altzagako berdegunea defendatzeko mugimenduak beste aurrerapauso bat emango du, «Udalak ezer gertatuko ez balitz bezala» egiten jarraitzen duela ikusi dutelako.



Sinadura-bilketa iragartzeko agerraldia egin zuten Tartanga Berdeko kideek.

Ehunka herritarrek babestu zuten otsailaren 20an Tartanga Berdeak Altzagan antolatu zuen mobilizazioa. Auzo horretako berdegune bakarra babesteko beharra adierazi zuten, udal gobernuak 400 etxebizitza eraikitzeke daukan proiektuaren aurrean; izan ere, deitoratu dute ez dutela inor topatzen «berdegune publiko batean etxebizitzak eraikitzeke onurak dituela defendatzeko gai denik».

Azaldu dutenez, «manifestazioak arrakasta izan bazuen ere, udal gobernu-taldeari zuzenean dei egin genion arren, ezer ez gertatu balitz bezala egiten jarraitzen dute, eta ez dira gai izan auzokideon gehiengoak sentitzen dugunari inolako erantzunik emateko».

Horren aurrean, beste aurrerapauso bat eman eta udal-ekimen bat Udaltzara eramateko sinadura-bilketari ekingo diotela iragarri dute. Zehaztu dutenez, Erandion erroldatutako 18 urtetik gorako bi-

zilagunen sinadurak bilduko dituzte eta, beraien helburua betetzeko, gutxienez, erroldaren % 10 beharko dute; 3.000 sinadura inguru.

Ekintza horren bitartez, 400 etxebizitza eraikitzeke proiektua geldiaraztea da beraien asmoa, «harik eta lursail horien etorkizuna erabakitzeke herri-galdeketa bat egin arte behintzat». Eraikuntza egiten hasten ez diren bitartean proiektua geldiarazteko aukera dagoela nabarmendu dute, nahiz eta etxebizitzak saltzeko eta zozketa publikoa egiteko prozesu inmobiliarioa martxan dagoen.

Berdegunea babesteko arrazoen artean, azpimarratu dute daborduko Erandion hainbat etxebizitza-proiektu daudela, baina ez dutela herritarren bizi-kalitatea kontutan hartzen, ez baitago Tartangakoa bezalako irisgarritasuna duen berdegunerik auzoan: «Gaur egun Erandion buelta bat ematea gauzarik tristeena da, dena delako porlana eta ez dagoelako berdegunerik». ◀

Sopela Diru-laguntzak

Diru-laguntza deialdia zabaldu dute kultura eta kirol-jarduerentzako

Sopelako Udalak udalerriko kultura eta kirol elkarteek 2022ko diru-laguntzak eskatzeko epea zabaldu du. Horien bitartez, udalerriko talde zein norbanakoen funtzionamendurako dituzten gastuak ordaintzen lagunduko die Udalak. Alde batetik, kultur jarduerentzako 20.000 euroko partida bideratuko dute, eta, bestetik, kirolarentzako 10.000 euro gordeko dituzte.

Udal-iturriek zehaztu dutenez, diru-laguntza horiek ohiko jardueraren ondoriozko gastuetarako erabiliko dira, hots, erakunde eskatzaileen ohiko funtzionamendu egitarauaren barruko jarduerari dagozkienak.

Edozein pertsona fisiko edo juridiko izan daiteke laguntzon onuradun, baldin eta udalerrian erroldatuta badaude edo egoitza Sopenan badute. Gainera, jarduera Sopelako udalerrientzat interesgarria izan beharko da, Udalaren irizpideen arabera, hau da, Udalak eremu horretan egiten dituen jarduerak gehitzeko, osatzeko edo ordeztzeko balio izatea, hain zuzen ere.

Deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hamar eguneko epean aurkeztu beharko dira eskabideak. ◀

Barrika Mailegu-zerbitzua

Laguntza Teknikoen Bankua ezarri du Barrikako Udalak

Laguntza teknikoa mailegatzeko zerbitzu solidario berria jarri du martxan Barrikako Udalak mendekotasun-egoe-ran dauden, mugikortasunerako zailtasunak dituzten eta zaintza-lanak egiten dituzten udalerriko edozein herritarrentzat. Laguntza teknikoak eguneroko zereginetan edo zaintza zereginetan asko laguntzen duten artikulua dira. Horietako baten maileguan interesa duten udalerriko pertsona guztiek Udalaren Gizarte Ekintza Sailaren bidez eskatu beharko dute. Artikuluak mailegatzear gain, Bankuak dohaintza zerbitzua ere badu. Horrenbestez, norbaitek erabiltzen ez duen laguntza teknikorik badu, dohaintza egin dezake, bat@fundacionabueloactual.org helbide elektronikora idatzita edo 944 409 116 telefono zenbakira deituta. ◀

Uribe Kosta UK Argi eta Garbi ekimena

Ingurumen-hezkuntza tailerrak emango dituzte eskualdeko zentroetan

Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateak haurtzarotik sustatu gura ditu ingurumena errespetatu eta zaintzeko balioak eta ohiturak. Helburu horregaz, apirilean, UK Argi eta Garbi ekimena aktibatu zuen, eskualdeko ikastetxeetan gauzatuko den proiektua, hain zuzen ere. Bertan, ikasleak ondo birziklatzearen eta hondakinak murriztearen garrantziaz jabetuko dira, eta materia organikoa konpostatzeko bosgarren edukiontzia erabilerari arreta berezia jarriko diote.

Ikastetxe bakoitzean, ingurumen-hezkuntzako tailerrak egingo dituzte, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako mailetara egokitutako eta diseinatutako eduki eta metodologiakaz. Hezkuntza-tailer horien bidez, umeak honako balio hauek landu gura dituzte, besteak beste: ikasle bakoitzak sortzen



35 jarduera

Apirilaren 26tik azarora bitartean, Mankomunitatea osatzen duten udalerrietako ikastetxeetan 35 jarduera egingo dituzte, umeek kontzientzia har dezaten hondakinak murriztu eta zaborrak behar bezala kudeatzearen garrantziaz.

dituen hondakinak ezagutzea, «5 R»-ak zeintzuk diren ikastea –baztertzea, murriztea, berrerabiltzea, konpontzea, birziklatzea eta erantzukizuna–, norbanako bakoitzaren sormen-gaitasunak garatzea, ikastetxeko gainerako ikasleakaz hondakinakaz sortutako artelanak erakustea, ingurumena hobetzeko norbanakoaren erantzukizuna nabarmentzea eta gizarteko kideen arteko lankidetzaren ezinbesteko beharra ulertzea.

Tailerrak Mankomunitateak dituen totem-en kanpainagaz osatuko dira. Pallet berrerabiliakaz egindako egituren helburua da herritarrei jakinaraztea eta zalantzak argitzea, hondakin mota bakoitza non eta zein edukiontzitan utzi. Gainera, totem horietan agertzen den QR kodearen bidez, *Birziklatu zalantzarik gabe* izeneko informazio-liburuxka ere deskargatu ahal izango dute.◀

ARTOLOZAGA

Tailerrak

ANAIK

Mekanika · Karrozeria · Elektronika

**Etxean zure kotxea jasotzeko zerbitzua eskaintzen dugu!*

PRESTATU ZURE KOTXEA UDARAKO:

hozte-sistemaren egoera aztertu	gurpilen presioa ikusi	aire girotua errebisatu
haizetako eguzkitakoa ipini	eroan beti ura	arropa erosoagaz gidatu

**ITV-a gainditzeko irizpideak ematen ditugu!*

talleresartolozaga.com
946 763 814
Gatzarriñe Kalea, 42 SOPELA
615 182 122

Uribe Kosta Maiatzaren 29an

Bizkaia Hari Gorriaren baitan, herri-martxa antolatu dute

Hiru zutabetan mobilizatuko dira: batetik, Algortatik eta Romotik, 12:00 eta 13:45ean; Leioa eta Astrabudutik, 13:00 eta 13:15ean; eta Alzagatik 13:15ean.



Besteak beste, Bizkaiko pentsionisten borroka izango dute gogoan.

Faxismoa Bizkaian sartu eta «Euskal Herriaren asimilazio saiakera odoltsua» gertatu zenetik 85 urte betetzen direla gogoratzeko, baina batez ere ordutik honako erresistentzia eta askatasun grina mantendu izana balioan jartzeko asmoz, Bizkaia Hari Gorria dinamika jarri dute martxan hainbat eragilek, diotenez, «dinamika bizkaitarra, gorria, bizia, indartsua, alaia, kolektiboa».

Euren ustez, memoria lanabesa da, «nondik gatozen jakinez, gaurkoa borrokatu eta biharkoa eraikitze». Izan ere, sustatzaileen esanetan, «1937ko gertakari haietatik, etenik izan ez duen hari borrokari bat egon da, gaur arte etenik izan ez duena». Gaurko errealitateari begiratuta, Bizkaia borroken kokaleku soila izatetik urrun, borroka subjektu dela ondorioztatu dute. «Ezinezkoa zaigu gure herria ulertzea Lemoizko zentral nuklearra geldiarazteko borroken, Erandioko

herriak oihukatutako 'Fuera el gas' ozenaren, Euskaldunako batailaren, gaztetxeen sorreraren, eta beste hainbat gertaeren kontzientziarik gabe.» Azpimarratu dutenez, borroka horien oihartzuna atzeman dute gaur egungo mugimendu feministaren indarraren, Tartanga Berdearen aldeko mobilizazioen, Azkorriz bizirik mantentzeko grinaren, Kurkudi eta Otxantegiko erresistentziaren, Alconzako langileen haserreak, osasungintza publikoaren defentsaren, pentsionisten tinkotasunaren eta gazte mugimendu alai eta borrokariaren atzean.

Horrenbestez, hilaren 29an, eguerditik aurrera Algorta, Romo, Leioa, Astrabudua eta Alzagatik aterako diren martxari amaiera emango diete Erandioko Axpeko erriberan, 13:30ean. Bertan, ekitaldi batez osatuko dituzte urteotako garaipenak. Halaber, gaur egungo borroka ezberdinen aldarrikapenak soinean bertaratzeko deia egin dute. ◀

Plentzia Inkestaren emaitzak

Auzokideek Plentzia udalerriko bizi-kalitatea epaitu dute

Plentziarren gogobetetzeari buruz egingandako inkestaren emaitzak ezagutzera eman ditu Udalak, eta hainbat gairen inguruko hainbat datu zabaldu ditu bertan; besteak beste, Arpillako aparkalekua, garbiketa eta kudeaketa dira herritarrek gehien kezkatzen dituzten kontuak. Bestalde, udal-gobernua eta oposizioa bat etorri dira datuok oso baliagarriak izango zaizkietla azpimarratzean, eta adierazi dute etorkizunean esfortzuak bideratzeko baliatuko dituztela. Halere, David Crestelo EH Bilduko ordezkaria oso kritikoa azaldu da Udalak datuok zabaltzeko moduz, «oso modu partzialean argitaratu» dituelako, «enpresak adierazitako zehaztapenak adierazi gabe». Besteak beste, koalizio abertzaleko ordezkariak azpimarratu du polarizazio politiko argia dagoe la Plentziako udalerrian, «batez ere, Udalak blokeatu gaituelako, eta horren ondorioz bai gobernu-taldea -EAJ- bai plentziarrak galitzen atera dira».

Emaiza horien aurrean, irakurketa sakona eta autokritika egitea eta Udalagaz elkarlanean Plentziaren alde egiteko deia egin du politikari abertzaleak; «politikoki ausartagoak izan behar gara, herriaren alde elkarrekin lan egiteko». ◀

Plentzia Euskadiko Txapelketa

Arkote arraun-taldeko haurrek 2022ko txapela jantzi dute

Apirilaren hasieran Bizkaiko Txapelketa irabazi ondoren, Arkote arraun-taldeko gizonezkoen haurrek Euskadiko ikurrina bereganatu zuten apirilaren 23 eta 24an Sestaoko uretan jokaturako txapelketan. Arkotek ez zuen horrelako garaipenik lortzen 2017tik, talde horretakoek gogoratu dutenez.

Garaipen horri esker, joan den apirilaren 30ean eta maiatzaren 1ean, Arkoteko mutilek Pasaian (Gipuzkoa) jokatu zen batelen Espainiako Txapelketan parte hartzeko aukera izan zuten, eta hirugarren sailkatu ziren. Bertan, Galizia, Kantabria, Asturias eta Euskadiko ontzi bizkorrenen aurka aritu ziren, maila goren-gorenean. ◀

Euskarari, atara kontuk! Joanes Atxa Olaiz

Euskararen barneko mugak sortzen eta suntsitzen



Askotan ikusi ditugu euskalkiak koloreka banatzen dituzten mapa ikusgarriak, baina, ba al dakizu sailkapen horiek nola egiten diren? Oraingoan, hizkeren artean suge gisa ibiliko gara, hauen arteko mugak bilatzen.

Hizkuntza elementu naturala da. Gure bizitzaren parte da sortzen garenetik hiltzen garen arte, eta hori gutxi balitz, hainbat ikerketek jaio aurretik ere hizkuntzaz jabetzen garela frogatu dute. Gainera, unibertsa da, mundu osoko gizaki orok du hizkuntza bat bere garunean, bakoitzak berea badu ere.

Dialektoa edo euskalkia ere, naturala al da? Hitzun bakoitzak egunerokoan darabilen hizkera, noski, guztiz naturala da. Hizkera molde horri ematen zaion izena, ikastolako irakasleak darabilen hizkera kurioso horri 'gipuzkera', 'erdialdekoa' edo 'donostiarra' deitzea ez da berezkoa. Guk geuk ezartzen dizkion etiketak dira, modu guztiz subjektiboan erabakitako sailkapenei jarraiki.

Hizkuntzaren aldakortasuna aztertzerakoan, bada oso garrantzitsua den tresna bat: **isoglosa**; hizkuntzaren bi aldaera ezberdinen arteko lerroa finkatzen du horrek. Adibidez: hodeiak datozenean zerutik jausten den urari Bakion *huri* esaten zaio eta Lemoizen, berriaz, *auri*. Horrek esan nahi du Lemoiz eta Bakio artean isoglosa bat marraztu dezakegula, hitz berberaren bi forma ezberdin erabiltzen direlako lerro horren alde batean eta bestean. Dialektoak aztertzen ibiltzen diren adituek



1go irudia



2. irudia

isoglosen arabera sailkatzen dituzte euskalkiak, azpieuskalkiak eta hizkerak. Hala ere, askotan zaila izaten da hizkerak antolatzea.

Demagun hitz baten aldaera edo forma ezberdinak hartzen ditugula, bi hizkera bereizteko. Lehen irudian ikusi dezakegun bezala, belarri luzedun animalari '*asto*' esaten diogu Euskal Herri osoan zehar. Hitz honek ez du inolako isoglosarik sortzen eta, beraz, ez digu euskalkiak sailkatzeko balio.

Bigarren irudian, kontua bestelakoa da. Aditz laguntzaile berberari *dot* esaten diogu mendebaldean, *det* erdialdean, *dut* ekialdean eta *düt* ekialde muturrean. Mapa horrek euskalkiak sailkatzen hasteko tresnak ematen dizkigula dirudi, eremu bakoitzean forma ezberdinak ageri dira, baina, kontuz! Geuk ezarritako isoglosak ezustekoa dakarkigu bat-batean. Ikus dezakegunez, Nafarroa iparraldeko hainbat herritan ere *dot* forma erabiltzen da, mendebalde osoan bezala.

Bizkaitarron aldaera bereizgarria zela uste genuen, mendebaldekoa banatzeko isoglosa tinkoa sortu lezakeen ezaugarria, baina beste-lako bereizgarrien bila jarraitu beharko dugu. Euskalkien ikerketak hori dakar beregain, hamaika formak bildu eta isoglosak eraiki zein deseraiki. Mugak sortu eta suntsitu. ◀



**ARANTZA
ETXEBARRIA**
Hortz-Klinika

Odontologia orokorra
Ortodontzia

Periodontzia
PADI

Bidebarri 27, behea eskuina · ALGORTA

944 307 696



**HARTU
BOLADA ONA
GUGAZ.
EMAIOZU BULTZADA
ZURE
NEGOZIOARI!**

Zure enpresaren edo negozioaren urte osoko publizitate-kanpaina jaso gura baduzu ipini zaitetz gugaz harremanetan:
944 911 337 / 688 811 368 • publi@hiruka.eus



Begia eta bisturia Ina Gastaka Eguskiza

Ubarroiaren txioa: Kritika vs Analisia

Kontaketa baten aurrean, narratzailearen istorioari arreta eskaintzea izan ohi da eraikitzaileena. Zentzu horretan, nabarmen genezake narrazioen bi erabilera nagusiak: helburu ludikoa, hots, entretenitzea; eta xede hezitzailea edo pedagogikoa. Halere, zer gertatzen da «ipuina» bukatzean?

Mundu globalizatu(egi?) batean bizi garen heinean erabat konektatuta gaude, eta gure iritziak zabaltzeko eta partekatzeko abagunea ez da inoiz hain erraza izan; askok horiek entzun edota irakurri nahi ez izan arren, agerian daude eta gehiegi dira: ezinezkoa da horiei ez erreparatzea.

Besteak beste, kritika zinematografikoa gaurkotasanari estu-estu lotuta dagoen iritziak plazaratzeko jardura da. Berotasunean egiten da, filma bukatu bezain laster, emozioak oraindik bihotzetik gertu dauden bitartean. Ez du aldamiko metodologiko berezirik eskatzen, lan inpresionista hutsa da, narrazio baten aurrean sentitu izan ditugun emozioen metaketa eta, horiek kontuan hartuta gure gustuak osatzen duenarekin konparatuz gero, emaitza manikeoa plazaratu: filma ona/txarra izan da. Hortaz, bihotzetik eratorritako genero literarioa dela aise defenda genezake. Eta sentimenduekin zerikusirik duen guztiarekin bezala, ikuspuntuak kontrakoak izanez gero, askotan, muturrekoak ere izan daitezke. Hortik, izan ere, eztabaidak sortzen baitira eta, egungo gizartean (batik bat, sare sozialetan) ika-mikak ohiko baino ohikoagoak dira.



Istorioak

Gizakiok betidanik baliatu izan ditugu istorioak, bai munduari zentzu emateko (mitologia), bai gure jakituria belaunaldi babesteko (ahozko tradizioa), bai egunerokoan jazotakoa azaltzeko (eskarmentuak) eta baita gure sormen artistiko beharrak asetzeko ere. Aldagai horiek guztiak ez daude egungo testuingurutik oso urrun. Izan ere, gizarte garaikidean inoiz baino istorio gehiago kontatzen dira, eta inoiz baino urrunago heltzen dira.

Bestalde, erabat ahaztuta daukagun generoa daukagu: analisia edo, semiotikak dioten moduan, exegesia. Honek kritikak zehazten dituen gako guztien kontrako ezaugarriak bereizten ditu. Hau da, bata bihotzetik jaio bada, honek burua du sorleku; kritikak emozioz hornitzen da, analisiak arrazoiez baliatzen da esan behar duena defendatzeko; lehenak berotasunetik hurbil badago, exegesiak hoztasuna eta lasaitasuna behar ditu testua behar den moduan garatzeko; kritikak eztabaiak erakartzen dituen neurrian, analisiak elkargunea eta adostasuna ditu helburu.

Erraz esanda, azterketak obra jakin baten formetan, figuretan eta egitura erreparatzen du narrazioak zer dioten argi jakiteko eta, batez ere, zelan esaten duen garbi zehazteko. Helburuak izan behar du jaso dugun istorioa ahal den modurik sakonenean ulertzea. Horretarako, obra batek plazaratzen dituen tramak xehatu, pertsonaiak deskribatu, egoerak konparatu eta formak aztertu dugu bide. Hori guztia egitea, tamalez, baliteke luzeegia gertatzea txio bakan batean partekatzeko, eta ez du interes handirik sorraraziko; alabaina, guztioi erakartzen gaitu ubarroi baten hegaldia uso batean gorotza baino gehiago, lehena bestea baino are bereziagoa izan arren. ◀

aldai
Tapiztegia
Dekorazioa
Erakusketa
Tailerrak

Basagoiti etorbidea 32
48990 Algorta
94 460 90 31

GetxoGasol

Urteko 365 egunetan gaude zabalik

- Garbiketa gunea
- Denda eta okindegia
- GnG tailerra
- Solaguren Jatetxea

944 301 500

Getxo eta Berango artean

GetxoGason Euskararekin bat!

Lehen/Orain **Leioa, 60ko hamarkadaren bukaeran**



ITURRIA: LEIOA.INFO



Uribitakora



TESTUA
Daniel de
Miguel Avecilla

DOINUA
Gurutze Santu
Legazpikua

ARGAZKIA
Hodei Torres

Berangoko prozesioa (alegoriak)

*Prozesioak ekarri ditu
berriro Aste Santuak;
ibilbidea, Kalbarioa,
ta Pilatoren eskuak.
Ahaztu dira, dirudienez
kutsatzeko arriskuak,
Berangon ere ikusi ditut
andre-gizon elkartuak:
Alconzakoak dira kalean
defendatzen lanpostuak.*

*Judasek Jesus saldu ei zuen
hamahiru txanponen truke.
Orain Alconza, erruki gabe,
gurutzean jarri dute.
Gauza bat esan, bestea egin,
badute hainbat bertute!
zikina dena zuria dela
sinestarazi digute.
Fariseuak gure artean
daudela esango nuke.*

*Etorriko da gu salbatzera
Jaunaren Probidentzia?
Guk sinistea hori omen da
batzuen komenentzia.
Puntadun txano baten azpian
gorde dute dezentzia?
Berangon ere sumatu dugu
Erromaren esentzia.
Konfesatuta egin dezala
nork bere penitentzia.*

ALBE

**Algortako
Bertsolari
Eskola**



Lehenengo kontsulta eta ekografia doan.

Zain barneko laserra: barize lodiak desagerrarazteko teknika

Hanaketako barizeen arazoarentzat konponbideren bat aurkitzen saiatu diren gizon-emakumeek hainbat tratamendu egiteko aukera topa ditzakete gaur egun, baina, halere, zalantza ugari izan ohi dituzte ezer egin baino lehen.

KIRURGIA EDO SAFENEKTOMIA. Kirurgia tradizionala edo safenektomia, guztien artean, tratamendurik erasokorra da. Anestesia orokorra edo errakidea behar du, eta baita hainbat egun iraun dezakeen susperraldia ere. Gainera, berriro ateratzen diren barizeen indizea % 20koa da.

N BUTIL ZIANOAKRILATO - ITSASGARRIA. Itsaskorra, N Butil Zianoakrilatoa, tratamendu bereziki egokia da barize gutxi dituzten pertsona gazteentzat. Bigarren aukerako tratamendua da, bost urterako emaitza onak erakutsi dituzten ikerketen bermea du baita ere, zain barneko laserrarekin lortzen diren emaitzak hobeagoak baitira.

ESKLEROSIA APARRAREKIN. Ekografo bidez zuzendutako aparra edo esklerosia aparrarekin zain lodi gaixoen alaben tratamendurako teknika aproposa da. Tratamendu hau safe-na zainentzat ere aproposa da, baina barizeak berriro agertzeko aukera kontutan izan behar da; izan ere, aparrarekin tratatutako zainen % 40a berriro agertzen da.


Gomendagarria da baita ere ebakuntza egin duten eta berriro barizeak dituzten pertsonentzat, kirurgia berriro ere ez badute egin nahi.

ZAIN BARNEKO LASERRA. Zain barneko laserra lehenengo aukeratzat jotzen da safena zainetako gutxiegitasunak eragindako barize arazoarentzat. Horretan bat datoz hainbat nazioarteko mediku-erakundek.

Horrek esan nahi du beste tratamenduak baino lehenago gomendatzen dela, barizeak berriro agertzeko aukera gutxi daudelako, erasokortasun baxuko tratamendua delako (klinikatik oinez ateratzen da eta bizimodu ia normala egin daiteke) eta ebakuntza-ondokoa oso arina delako.

Laburbilduz, zain barneko laserra Dermiteken emaitzarik onenak izaten ari den tratamendua da. Izan ere, klinikan 2.600 kasu tratatu dituzte 2010etik, eta barize kasuen % 99,6 berriro ez agertzea lortu dute. Eta zer gertatzen da berriro agertzen badira? Dermiteken bermea eskaintzen dute: tratatutako barizea lehenengo urtean berriro agertzen baldin bada, berriz tratatuko dute, kosturik gabe.

P.S.E. 92/21



DERMITEK
Uribitate pasealekua 11-12
48001 BILBO
 (Zubizuri zubiaren ondoan; Moyuako metro-geltokitik eta Uribitarteko tranbia-geltokitik hurbil)

Telefona
 944 010 110

Astelehenetik barikura:
 8:30-20:00


Zapatuetan:
 9:00-15:00






Gertuko begirada koloretsua

Karmele Etxeandia argazkilariaren irudi batzuk ekarri ditugu orriotara oraingoan. Artista leioaztarra txikitatik hasi zen marrazten, eta, diseinu grafikoa ikasi ostean, argazkilaritzaren munduan murgildu zen. Paisai koloretsuak eta bidaietako argazki ederrak egiten ditu, baina baita erretratuak ere; azkenaldian, autoerretratu bereziak eta ilustratuak egiten dabil. Bere lana ezagutu eta gozatzeko, bilatu ezazue Instagramen: @welcomekarma.













Alberto Garcia Umore Azokako koordinatzailea

«Kaleko artea demokratikoa den eremu batean garatzen da»

Beste behin, kaleko artisten agerlekua izango da Leioa, maiatzaren 19tik 22ra. Aurtun, Euskal Herriko, Espainiako Estatuko eta nazioarteko 40 konpainiak hainbat motatako 90 ikuskizun eskainiko dituzte hiru egunetan zehar: zirkua, antzerkia, dantza... Datorrena hobeto ezagutzeko koordinazio lanez arduratzen den Alberto Garciagaz egon gara.

TESTUAK: **ANDER ZARRAGA** ARGAZKIA: **HODEI TORRES** ►

Zein da Umore Azokaren antolakuntzan betetzen duzun lana? Nire zeregina da Umore Azokaren atal guztiak koordinatzea eta horien antolakuntza-lanetan parte hartzea, hala nola proposamen artistikoak jasotzea, Batzorde Artistikoaren bidez aukerarik egokienak hautatzea, konpainiak aztertuak akordioak ixtea, emanaldien eta guneen egutegia planifikatzea, talde teknikoagaz eta ekoizpenagaz koordinatzea, jarduera paraleloak antolatzea, eta abar.

COVID-19aren pandemiak eragindako burohausteen ondoren, zer suposatzen du ohiko datetara itzultzeak? Gure denbora-tartea berreskuratzea dakar, Umore Azokaren datak aldeztuak direla planifikatuta baitaude. Modu horretan, bertaratuko diren erakundeetako profesionalak ikuskizunak ikusteko eta hautatzeko aukera daukate hurrengo hilabeteetara begira; izan ere, uda eta udazken denboraldian biltzen dira kontratazio gehienak.

Zein da Umore Azokaren filosofia? Azokaren filosofia askotarikoa da, baina helburu zehatz batzuetan dago oinarrituta: hasteko, kaleko arteen industria-garapena sustatzeko sortutako ekimena da; horren bitartez, besteak beste, euskal konpainiak bultzatzea bilatzen du. Horretaz gain, arte eszenikoen sektorearen kontsumoa, ibilbideak eta koor-

Umore Azokaren filosofia

«Kaleko arteen industria-garapena sustatzeko sortutako ekimena da; horren bitartez, besteak beste, euskal konpainiak bultzatzea bilatzen du»

Ikuskizuna baino gehiago

«Umore Azoka adierazpenerako izateaz gain, didaktikoa eta komertziala izateko helburua ere dauka; hau da, informazioa trukatzeko eta ikusleak zein profesionalak erakartzeko ahalegina egiten du urtez urte»

dinazioa ere sustatzen ditu. Izan ere, helburua da konpainiei beraien lanak aurkezteko erakusleho bat eskaintzea, eta, horretaz gain, sortzen duten ikuskizun bakoitzaren errealitatea erakusteko aukera izan dezaten. Halaber, kaleko arte garaikideen sorkuntza eta fusioa bezalako ekarpen berriak ere bultzatzea du helburu. Kaleko ikuskizunen balorazio soziala ere areagotzea da xedeetako bat, herritarren artean horrelako ikuskizunek interes handiagoa izan dezaten, hain zuzen ere. Programatzaile eta banatzaileei dagokienez, arte eszenikoen sektoreko errealitatea eta aukerak hurbiltzen dizkien jaialdia da; gainera, Espainiako Estatuko erkidegoen arteko kaleko sorkuntzan dagoen aukera zabala ezagutzeko abagune sakona eta interesgarria ere eskaintzen die; izan ere, Umore Azokak adierazpenerako izateaz gain, didaktikoa eta komertziala izateko helburua ere badu, hau da, informazioa trukatzeko eta ikusleak zein profesionalak erakartzeko ahalegina egiten du urtez urte. Azkenik, azpimarratuko nuke publikoari eta Leioari sorkuntza berriak hurbiltzeko ahalegin bat ere dela, kalean ere horrelako ikuskizunen gozamenak sustatzeko, hain zuzen ere.

Nolakoa izan da Umore Azokaren bilakaera 22 urteotan? Umore Azoka aldatu da, duela 22 edizio lehen aldiz egin zenetik. Eboluzio



Deabru Beltzak kale antzerki konpainiaren ikuskizun harrigarriak Umore Azokako ohikoak bihurtu dira.

hori kaleko arteakaz batera eman da; hau da, Euskadiko, Espainiako Estatuko eta nazioarteko arteakaz gertatu den bezala, azokak ere bilakaera bat izan du, hain zuzen. Duela 22 urte, kalea erabiltzen zuten konpainiak ez ziren hainbeste; hala ere, eta bitxia iruditzen arren, Euskadin dugun klimatologiagaz, konpainia kopurua oso nabarmena zen, baina ez zuten beren lanak aurkezteko puntu edo erakusleihorik. Bestalde, eboluzioa tekniken zabalkuntzaren aldetik ere joan da; lehen, ia dena zen antzerkia, zirku ibiltari apur bategaz. Gaur egun, aldiz, asko dibertsifikatu dira ikuskizunak, eta, aurrekoaz gain, dantza, performanceak, instalazioak, zirku lengoia berriak eta abar aurkitu daitezke, eta horien guztien fusioa ere aurkitu daiteke ikuskizun berean.

Beraz, kaleko artistak ere asko aldatu dira?

Bai, artistak ere espezializatzen joan dira, eta ikuskizun hurbilagoak, konprometitua-goak, eta dinamikoagoak sortzen saiatzen dira. Ezin dugu ahaztu enpresa horiek horretaz bizi direla, eta, beraz, etengabe gainditzeko eta publikoarengana hurbiltzeko asmoa dutela.

«Kaleko arteak garrantzitsuak dira erabat demokratikoa den eremu batean garatzen direlako; irekita daude, solidarioak dira, eta ikusle bakoitzak istorio edo ekintza bategaz egiten du topo modu irekian»

Umore Azokarako zergatik aukeratzen dituzue bereziki kaleko artistak? Kaleko ikuskizunak artearen atal garrantzitsu bat dira zuzeneko adierazpen artistikoen barruan. Alde batetik, horien jatorriaz hitz egin dezakegu, iraganean herriz herri ibiltzen ziren jugla-reak baitziren, beren abenturak kantatzen edo hori bera egiten zuten titiriteroak ere zeudela gogoratu behar dugu. Bestetik, kaleko arteak garrantzitsuak dira erabat demokratikoa den eremu batean garatzen direlako; irekita daude, solidarioak dira, eta ikusle bakoitzak istorio edo ekintza bategaz egiten du topo modu irekian.

Zeintzuk izango dira aurtengo Umore Azokak ekarriko dituen berrietasun nagusiak?

Bueno, nobedadeei dagokienez, ohiko datetara bueltatzeaz gain, konpainiek aurkeztutako dituzten ikuskizun bakoitza izango da berrietasun bat funtsean. Presentzia zabal eta osatua izango dugu kaleko arteen esparrua erabiltzen diren teknika artistiko eta fusio berriei osatua.

Ikuskizun mota konkreturen batean jarriko duzue fokua aurtengoan? Ez, gure helburua aha-

lik eta jardueren kalitate eta aukera handiena eskaintzea izango da, beraz, mota eta gustu guztientzako moduko ikuskizunak egongo direla esan dezakegu.

Etorriko direnen artean, artista edo konpainiaren bat nabarmenduko zenuke? Ez, denak dira garrantzitsuak, denek aurkeztuko dituzte beren lanak eta denek espero dute publikoaren txaloak entzutea eta aukera izatea profesionalki antzeztzen eta hazten jarraitzeko. Ezin dugu ahaztu guztira 40 konpainia izango direla eta 450 proposamen baino gehiago hautatu direla.

Non izango dira aurtengo ikuskizunak? Datat berreskuratuko ditugun bezala, gune guztiak ere berreskuratuko ditugu. Guztira, 18 gune-eszeniko erabiliko ditugu Leioako plaza, kale eta abarretan: Aldapa auditorioa, Kultur Leioa, udaletxe plaza eta Boulevarda, besteak beste.

40 konpainia, 90 ikuskizun baino gehiago... Zifra garrantzitsuak dira. Nolako da hori guztia kudeatzeko eta koordinatzeko lana? Lan garrantzitsua da, ikuskizunen guneen, beharren eta horrelakoek koordinazioak lan asko eskatzen baitu. Horretarako, lantalde desberdinak daude, eta bakoitzak bere aldetik egiten ditu bere lanak, eta informazioa transmititzeko etengabeko bilerak egiten dira taldeen artean. Azken finean, oso garrantzitsua da Umore Azokan mugitzen garen guztiok lantalde bakoitzean egiten ari garena eta beharrak, arazoak, konponbideak eta abar koordinatzea.

Orain arte, beti mantendu duzue tokiko eta espainiar Estatuko konpainia kopuru handia, atzerriko artistak ere ahaztu gabe. Nolako da hautatze-prozesua? Umore Azokaren hasieratik helburuetariko bat izan da euskal konpainiak indartzea, euren lanak aurkezteko gune bat sortzea funtsezko puntu bat baitzen. Estatuko eta nazioarteko konpainiei dagokienez, lurralde osoan eta nazioartean sortzen eta garatzen ari dena ezagutzea da helburua, une bakoitzean kaleko arteen errealitateari buruzko ahalik eta ikuspegi zabalen eskaintzea, hain zuzen.

Estilo desberdinetako konpainiak bilatzen saiatzen zarete ala merkatua oso zabala da eta artistak dira ikuskizun ezberdin asko eskaintzen dituztenak? Merkatua oso zabala da, bai. Artistek eurek aurkeztu dituzten dizkigute beraien proposamenak; horregatik, urte batera edo gehiagoko epea duten ekintza edo ikuskizunak erakusten dizkigute askotan. Beste



Alberto Garciak Umore Azokaren hasieratik, duela 22 urte, darama antolaketa-lanetan.



Artisten eta antolatzaileen elkargunea

Leioako Umore Azoka ikuskizunak eta kaleko arteen erakusleiko bat baino askoz gehiago da: artistak elkartzeko topagune bat ere bada, baita beste jaialdi batzuetako antolatzaileei eta programatzaileei ikuskizunak eta konpainiak ezagutzeko abagune bat ere.

kasu batzuetan, zuzeneko harremana daukagu konpainiakaz, eta haien proiektuei buruzko informazioa trukatzeko dugu etengabe.

Umore Azokan dena ez da ikuskizuna; artista eta programatzaileentzako elkargunea ere bada. Zer ematen dio horrek azokari? Umore Azoka ikuskizunakaz gozatzeko gune bat baino askoz gehiago dela esan dezakegu; bilgune bat ere bada, informazioa trukatzeko, proiektuak aurkezteko eta kaleko artistak biltzeko ekimena ere bada. Gure ustez, Umore Azokaren funtsezko zati bat da hori, eta erakundeek modu aktiboan parte hartzen dute atal horretan ere.

Berbaldiak, liburu-aurkezpenak eta bestelakoak egongo dira aurtengoan. Esan daiteke lehen begiratuan ikusten dena baino askoz gehiago dagoela? Bai, Umore Azoka ikuskizunen aurkezpena eta plazaratzea baino gehiago da. Zati hori da agian ezezagunena, kasu askotan profesionalentzako ekintzak bakarrik egiten baitira, baina badira publiko orokorrarentzako irekiak dauden beste jarduerak batzuk ere. Kasu honetan, gure asmoa da Azoka trukerako gunea ere izatea, kaleko arteen errealitatea dinamizatzen lagunduko duena, hain zuzen ere. ◀

Getxophoto Ekainaren 2tik 26ra

Hamaika irudi «imajinatzeko» jaialdia izango da aurtengo Getxophoto

Getxophotok hainbat berritasun dakartza; nabarmenena bere data aldaketa, 16. edizioa irailetik ekainera mugitu baitute. Jaialdiak 22 artisten lanak erakutsiko ditu, eta irudimena izango da gaia.

IKER RINCON MORENO ►

Aurten, ez dugu irailera arte itxaron beharko Getxophoto Nazioarteko Irudi Jaialdiaz gozatzeko; ekainean izango da ekimena. Hala, data aldaketaz gainera, berrikuntza gisa, beste hiru erakusketa-areto gehituko dizkiote festibalariei: Begoñako galeriak, Algortako kasinoa eta Portu Zaharreko Daduen etxeko fatxada. Horietan guztietan, eta ohiko erakustokietan, nazioarteko hainbat herrialdeetatik etorriko diren 22 artisten lanak egongo dira ikusgai.

Kalean egoteaz gainera, aurtengoa, Getxophotok Interneten duen presentzia digitala indartzen jarraituko dute. Hala jakinarazi du Jokin Aspuru zuzendariak: «Ohiko argazkigintzaz gain, aurtengoa, algoritmoek, giltzek, sare neuronalek eta inteligentzia artifizialak ere izango dute lekua programazioan». Hala ere, guztia-aren gainetik, gertutasunaren eta herritarrek hartu-emanaren aldeko apustua egiten jarraituko dute. Horregatik, aurreko edizioetan egin duten bezala, udalerriko hiru gunek nagusitan egingo dituzte erakusketa printzipalak: Algortako erdigunean Ereaga hondartzako pasealekuan eta Romo Kultur Etxean.



Joan den apirilaren 25ean egin zuten jaialdiaren aurkezpena, Algortako Kasinoan.

Data aldaketa

Orain arte, 15 urtez irailean egin ondoren, aurtengo Getxophoto ekainera aldatzea erabaki dute, «hilabete oso egokia delako».

Jon Uriarte argazkilari hondarribiarrak egingo ditu komisario-lanak eta, «Imajinatu» lelopean, irudimenak bizitzari zentzua emateko duen rola eta horretarako irudiek eskaintzen duten aukerak aztertzeke proposamena egingo du. Bertoko eta nazioarteko 22 artista aukeratu dituzte, baina, azaldu dutenez, artista gehiago ekartzeko aukera izan arren, egungo neurria mantenduko dute, gertutasuna eta jasangarritasun bisuala mantentzeko. ◀

GETXOPHOTO NAZIOARTEKO IRUDI JAIALDIA (IMAJINATU) 2022.06.02-26 www.getxophoto.com

ANTOLATZAILEA: **BEGIHANDI** BARRERLE NAZIOA: **Getxo** BARRERLEAK: **BIZKAIA** **AC/E** **bbk** **LAGUNTZAILEA** **hiruka**

Patrizia Vitelli Ekintzaile gastronomikoa

«Nire ustez, gauzak naturalki transmititzea da gakoa»

IKER RINCON MORENO ▶

Bilboko gastronomia bisitariei erakusteko ibilbide gidatuak eskaintzen ditu Itzubaltzeta/Romon bizi den Patrizia Vitelli arrasatearrak. Hala ere, pandemiak kolpatuta, enpresa behin-behinean itxi eta bestelako diru-iturriak bilatzeari ekin zion 2020an, betiere gastronomiari lotuta. Hala, Foodiario sareratu zuen Instagramen, baita askotariko errezeta-liburuak eta ikastaroak ere.

Zelan definituko zenuke zure burua; nor da Patrizia? Arrasateko neska bat. Asko kostatzen zait nire burua definitzea, sukaldaritzari eta turismoari lotuta lan egiten dudalako bi gauza horiek ikasi barik; apur bat iruzurtia naizela iruditzen zait. Beraz, nire burua definituko nuke enpresari edo ekintzaile gastronomiko gisa.

Gastronomiari lotutako bi enpresa dituzu. Zeintzuk dira horiek? Bai, bi proiektu dira. Alde batetik, Bilbao Food Tours, turistentzako ibilbide gastronomikoak egiteko Bilbon; eta, bestetik, Foodiario, Instagram kontu bat non janari osasuntsuaren inguruko errezetak partekatzen ditudan. Gainera, marka ezberdinak lan egiten dut, eta liburuak eta ikastaroak saltzen ditut baita ere.

Nolatan okurritu zitzaizun mota horretako ibilbide gidatuak egitea inguruotan? 2016an sortu nuen, Getxora bizitzera etorri nintzenean. Donostian, adibidez, *food-tours* kontzeptua jorratzen duten hainbat enpresa daude, baina, Bilbon, aldiz, ez zegoen halakorik. Hala, oportunitate bat ikusi nuen, eta horri ekin nion. Azken finean, niri gehien gustatzen zaizkidan hiru gauzak jorratzen ditut horregaz: janaria, sukaldaritzeta eta bidaiak.

Nondik datorkizu sukaldaritzarekiko maitasun hori? Beti esan ohi dut kozinatu baino nire pasioa jatea dela. Orduan, horretan behatu behar izan nintzen 18 urte nituela, ikasle-pisura etorri nintzenean Bilbora. Kozinatzen hasi nintzen, ideia askorik gabe, baina, gutxi-ka-gutxika, ikasten joan naiz.

Garai horretan, «The Cook Rocker» bloga zabaldu zenuen... Bai, egiten nituen erreze-



Arrasatearra izan arren, Getxon bizi da gaur egun Vitelli. HODEI TORRES

Influencer-a, bai ala ez?

«Nire atzean ez dago komunitate oso handia, baina oso erlazio ona dugu; naturala. Horri esker, edozer gauza gomendatzen dudanean, jendeak kontsumitu ohi du. Influencer izatea da hori? Bada, ez nuke esango hori naizela inoiz»

tak partekatzen nituen, eta, horri, rock abesti bat lotzen nion. Askotariko errezetak ziren; Kinder Buenoko irabiatuetatik lasagna batera arte. Esperientzia polita izan zen.

Orain, aldiz, janari osasuntsuan zentratzen duzu zure Instagram kanala. Noiz eta zergatik hasi zinen horretan? 2018-19 inguruan zabaldu nuen, argazkiak igo eta errezetak partekatzeko, hobby moduan. Gerora, COVID-19ak eragindako konfinamenduan, gogor ekin nion gauzak partekatzeari, eta, 2020ko apirilaren 19an, nire lehenengo liburu elektronikoa jarri nuen salgai. Asko saldu nituen, eta, orduan, ikusi nuen aukera bat nuela ibilbide gidatuetatik ez zetorren diru-iturria ordezkatzeko. Uste dut timing perfektua izan dela hau sortzeko.

Lan handia dago horren atzetik, ezta? Bai, uste nuena baino gehiago. Hiru markagaz lan egiteaz gainera, doako eduki asko partekatzen ditut jendearen interesekoak izan daitezkeenak, bestela, inork ez zaituelako jarraituko. Gainera, ikastaroak eta liburuak prestatzen denbora asko ematen dut. Lan pilo bat dago, bai, ez dirudien arren. ◀



QR kodea eskaneatuz gero, elkarrizketa osoa irakur dezakezu.

Maiatza-ekaina

Erandio

Maiatzaren 30era arte

Erakusketa: *Berdintasunerako bide luzea*

Josu Murueta kultur etxean

Euskal emakumeen borroka XX: mendean

Maiatzak 8, domeka

Kanpomartxo

13:00 | Erandioigoikoan

Erbotsek antolatzen duen jaialdiaren itzulera.

Maiatzak 29, domeka

Gasolino Eguna

Erandioko moilan

Herriko ikur bati omenaldia.

Getxo

Maiatzaren 7tik 15era

San Isidro jaiak

Egitarau osoa, 6. orrialdean.

Maiatzak 12 eta 13

Arteen sukaldea 2022:

Bizi Kultura

Muxikebarrin

Kaleko arteen garapena sustatzeko eta hausnartzeko jardunaldiak.

Maiatzak 14, zapatua

Dantza: *Tómbola*

20:00 | Utopian

Jolasagaz zerikusia duen dantza-ikusizuna.

Maiatzak 14, zapatua

Musika: Olatz Salvador

19:30 | Muxikebarrin

Aho Uhal lan berria.

Maiatzak 14, zapatua

Dantza: XXVII. Herrien Jaialdia

21:00 | Andra Mariko frontoian (jaiak)

Aurten, Rancho Folclórico São Bartolomeu de Messines izango da talde gonbidatua.

Maiatzak 15, domeka

Antzerkia: *Martin Zalakain*

19:00 | Muxikebarrin

Harkaitz Canok idatzi eta Juan Antonio Urbeltz eta Ander Lipusek zuzendaritzapean antzerkia eta dantza uztartzen dituen lana.

Maiatzak 20, barikua

Musika: *Bizkaia hauspoka*

19:30 | Muxikebarrin

Bilboko Akordeoi Orkestra Sinfonikoa zuzenean ikusteko aukera.

Maiatzak 22, barikua

Umeentzako ikuskizuna: *Loop*

18:00 | Muxikebarrin

Dantza garaikidearen hurbilketa bat.

Maiatzak 26, eguna

Eskolatik Plazara bertso-saioa

10:00 | Areetako Andres Isasi musika eskolan

Eskolatik plazara. Bertso-saioa ikastoletako bertsolaritzak ikasleakaz; ALBEk antolatuta.

Maiatzak 27, barikua

Antzerkia: *Kopaz kopa*

19:30 | Muxikebarrin

Bizitzaz gozatzeko tentazioetara gonbidapena.

Maiatzak 28, zapatua

Musika: Joaquín Achucarro

19:30 | Muxikebarrin

Eszena klasikoko piano-jotzaile garrantzitsuenetako baten emanaldia.

Ekainaren 2tik 26ra

Getxophoto

Getxoko kaleetan

Irudian oinarritutako nazioarteko jaialdiaren XVI. edizioa.

Gorliz

Maiatzaren 10etik 28ra

Gorlizko Pauso erronkara izen ematea

Turismo bulegoan

Guztien artean 6948km egiteko erronka eta hiru saski gastronomikoren zozketa.

Maiatzak 19, eguna

Berbaldia: *Nerabea izatea gaur*

18:00 | Sertutxenan

Izen-ematea turismo bulegoan.

Maiatzak 28, zapatua

Gorlizko XIII. triatloia

08:00 | Astondon

Leioa

Maiatzaren 19tik 22ra

Umore Azoka Leioa

Leioako kaleetan

Leioako kaleko artisten azokak ohiko datak berreskuratuko ditu aurten.

Maiatzak 27, barikua

Lamiako Maskarada

20:00 | Lamiakon

Izaki mitologikoei Lamiakoko kaleak hartuko dituzte beste behin.

Maiatzak 29 eta ekainaren 1etik 3ra

Lamiakoko jaiak

Aurtengo Leioako lehen jaiak.

Plentzia

Maiatzak 12, eguna

Munduko jolasak

17:30 | Ontziola plazan

Umeentzako jolasak, euskaraz olgetan ederto pasatzeko.

Maiatzak 12, eguna

EHUN-en aurkezpena

19:00 | Goñi Portalen

Euskal Errepublikaren aldeko mugimendua, Jose Ramon Becerraren eskutik. Ari Du Elkartasun Sareak antolatuta.

Maiatzak 13 eta 30

Amatasun tailerra

18:00 | Goñi Portalen

Plaza mugatuak izango ditu; izena emateko deitu Goñi Portalera.

Maiatzak 19, eguna

Robotika tailerra euskaraz

17:30 | Ontziola plazan

Umeek eta gurasoek euskaraz berba egiten ederto pasatzeko aukera.

Maiatzak 25, eguaztena

Berbaldia: *Klima aldaketa ur-larrialdiaren ikuspegitik*

19:00 | Goñi Portalen

Iñaki Antiguada hidrobiologian katedradunak berbaldia emango du.

Maiatzak 26, eguna

Herri Orienting

17:30 | Ontziola plazan

Umeentzako orientazio proba euskaraz olgetan ondo pasatzeko.

Sopela

Maiatzak 12, eguna

Zinegoak

19:00 | Kurtzio kultur etxean

Bilboko Gaylesbitrans 19. nazioarteko jaialdian aurkeztutako film-sorta.

Maiatzak 27, barikua

Antzerkia: *Nire semea pixka bat motelago dabil soilik*

20:00 | Kurtzio kultur etxean

Hainbat sari jaso dituen antzezlan.

Maiatzak 14, zapatua

Kuadrillen Eguna

14:00 | Sopelan

Herriko gazteek ederto pasatzeko eguna antolatuko dute.

Hezkuntza

hiruka

Gehigarri berezia

183. zenbakia

2022ko maiatza



**Etorkizuna,
esku-eskura**

Nesken bokazio zientifiko-tek

«Nahi duzuna izango zara» kanpaina jarri du martxan Bizkaiko Foru Aldundiak Euskadiko Lanbide Heziketako Ikastetxeen Elkartegaz batera. Helburua da neskak diren ikasleen artean bokazio zientifiko eta teknologikoak bultzatzea.

Datorren ikasturterako Lanbide Heziketarako izena emateko epea zabaltzeaz dagoela aprobetxatuta, Bizkaiko Foru Aldundiak, HETEL-Euskadiko Lanbide Heziketako Ikastetxeen Elkartegaz batera, «Nahi duzuna izango zara» kanpaina jarri du martxan. Kanpaina horren helburua da, arduradunek azaldu dutenez, Bigarren Hezkuntzako, Lanbide Heziketako eta Batxilergoko ikastetxeetan neskak diren ikasleen artean bokazio zientifiko-teknologikoak bultzatzea.

Egitasmoaren bultzatzaileek azpimarratu dute euren helburua dela STEAM (Science, Technology, Engineering, Art and Mathematics) titulazioetan gizon eta emakumeen arteko parekotasuna lortzea, «ikasleei eta gizarte osoari gizonak nagusi diren titulazio horien inguruan dauden genero-aurreiritziak erakutsiz».

Julen Elgetak, HETELeko presidenteak, eta Susana Gonzalez Romulok, Bizkaiko Foru Aldundiko Enpleguko zuzendariak, Lanbide Heziketako ziklo industrial bat ikasi duten bi neska ikaslegaz batera, prentsasurekoa eskaini zuten joan den apirilaren 26an Bilboko Itsasmuseumen; ondoren, kanpainari lotutako jardunaldi bat egin zuten, eta ehun ikasle baino gehiagok parte hartu zuten.

Kanpainak zein jardunaldiak, zazpi urte baino lehenago adin goiztiarrean sortzen di-

Lanbide Heziketako STEAM zikloetan ikasleen % 50 neskak izatea dute helburu; gaur egun kopurua % 10ekoa da.

ren eta ondoren sendotzen doazen genero-aurreiritziez kontzientziatu gura dituzte ikasleak. Izan ere, deitoratu dutenez, aurreiritzi horien ondorioz, neska askok ez du STEAM titulaziorik aukeratzen; urtez urte, «neskek mutilak diren ikaskidean baino askoz gutxiago aukeratzen dituzte titulaziook».

Ildo horretan, HETELek helburutzat ezarri du 2030ean Lanbide Heziketako ikasleen % 50 emakumez osatuta egotea –gaur egun, kopuru hori % 36koa da–. Era berean, STEAM zikloetan neska-mutilen kopurua berdina izatea ere gura dute, hau da: % 50ekoa ere alde bietan. Izan ere, gaur gaurkoz, alde nabarmena dago neska eta mutilen artekoa, lehenengoak % 10 baino ez dira horietan.

HETELeko arduradun Susana Gonzalez Romulok adierazi duenez, STEAM zikloak aukeratzen dituzten nesken enplegarritasuna % 87 ingurukoa da, eta etorkizunean «lanpostu gehienek digitalizazioari lotutako STEAM gaitasunak eskatuko dituzte».

Beste alde batetik, Bizkaiko Foru Aldundiko Enpleguko zuzendariak uste du beharrezkoa dela zientziaren eta teknologiaren arloko emakumeen adibideak ikusaraztea, eta, aldi berean, «STEAM lanbideak bultzatzea gure nesken eta emakume gazteen artean, berdintasun kontua delako baina, aldi berean, baita enpresak eskatzen ari diren gaitasunei erantzuteko ere». Era berean, azpimarratu du Bizkaiko Foru Aldundiak diskriminazio positiboko neurriak ezartzen dituela enplegu-programa guztietan, «emakume langabeek STEAM gaitasunak eta trebeziak eskura ditzaten, hau da, jasangarritasun sozial eta ekonomikoari dagokionez ditugun erronkei erantzuteko aukera emango digutenak».

knikoa areagotu gura dute



«NAHI DUZUNA IZANGO ZARA», KANPAINA. Gogoratu dutenez, ekimen hori ez da Bizkai-ko Foru Aldundiak eta HETELek abiarazi edo babesten duten lehenengo kanpaina edo programa. Aldundiaren kasuan, neurri batean finantzatzen da «Inspira-STEAM», «Ezkutuko talentua», «Moldeak apurtzen» programa edo Ada Byron Saria.

HETELek ere ildo horretan lan egiten du eus-
kal Lanbide Heziketan, emakumezko erreferen-
teak ikusarazteko ekimenen bidez. Berbarako,
jarduera batean zortzi urteko ikasleei zientzia-
lari bat marrazteko eskatu zitzairen, eta, guz-
tien % 44k emakume bat marraztu zuten arren,
mutiletako bakar batek ere ez zuen marraztu.

Ohartarazi
dutenez, neskei
erreferenteak
eta konfiantza
falta zaizkie,
eta, gainera,
orientazio txarra
izaten dute.

Ildo horretatik, HETELek berretsi egin zuen ziur-
dagoela ikasgelan adin txikienetatik lan egin
behar dela.

HETELek, aldi berean, egiaztatu du Lanbi-
de Heziketako zikloetan neskei erreferenteak
eta konfiantza falta zaizkiela, eta baita orienta-
zio txarra dutela ere. Hala ere, egiaztatu dute,
behin STEAM titulazio bat aukeratuta, «pozik
daudela egindako hautaketarekin eta bide hori
berretsi eta sendotu egiten dutela».

Apirileko jardunaldiez gainera, Lehen Hez-
kuntzako, Bigarren Hezkuntzako, Batxilergo-
ko eta Lanbide Heziketako ikastetxeen artean
modu irekian partekatzeak multimedia-mate-
rialak prestatu dituzte, besteak beste.



KONFIANTZAZKOA ETA HURBILA

- 0-16 adin tartea.
- Euskara eta euskal kultura onarri.
- Ingelesa Haur Hezkuntzatik.
- Guraso kooperatiba.
- Herritarra eta eraldatzailea.
- Autobus zerbitzua 2 urtetatik aurrera.
- Bertako janaria, ikastolan sukaldatua.
- Proiektu berritzaileak:
 - Konfiantzaren pedagogia, EKI, KIVa...
- Irakasleen etengabeko prestakuntza eta inplikazioa.

www.betikoikastola.eus
Artatza auzoa, 84. (48940) Leioa
info@betikoikastola.eus
94.464.23.64

ikastolen
kartak

Rally bat ikasitakoa frogatzeko

Panda Raid erresistentzia-rallya bueltan da aurten. Fadurako automozioiko ikasleentzako frogarik gogorrena maiatzaren 12tik 15era egingo da, Monegros basamortuan.

Fadura Institutuko Lanbide Heziketa-ko automozioiko ikasleek azterketa berezia gainditu beharko dute aurten. Bi urtez aritu dira Fiat Panda ibilgailu zaharrak prestatzen, horiek muturreko baldintzetara eramango dituzten Panda Raid rallyan parte hartzeko.

Urtero martxoan antolatzen den erresistentzia eta distantzia luzeko proba amateurra da hori. Horretan, irakasle eta ikasleek osatutako bikoteek gidari eta laguntzaile rolak hartzen dituzte, eta 300 taldek baino gehiagok parte hartzen dute *old school* izaerako abenturan. Zazpi etapetako ibilbidean, parte-hartzaileentzako eta ibilgailuentzako baldintza gogorrenetan aritzen dira helburu bakarragaz: lasterketa amaitzea. Aurreko urteetan Marokon egiten zen proba, baina COVID-19aren eta arazo politikoen ondorioz, aurten, Monegros basamortuan (Zaragoza, Espainia) egingo dute, maiatzaren 12tik 15era bitartean. Beraz, aurten, 800 kilometroko ibilbidea egin beharko dute lau etapetan Europako basamorturik handiena zeharkatzeko.

IBILGAILUA ETA PARTAIDEAK. Jose Libano irakasleak dioenez, ikasleek urte bitan egingdako ibilgailuen prestakuntza ez da erraza izan: «Alde batetik, elementu mekaniko zein



Iurgi Aiestak, Markel Arrasatek eta Aitzol Barañanok 2020ko edizioan parte hartu zuten.

AURREKO PANDA

Fadura Institutuak 2019tik parte hartzen du froga honetan. Lehen aldian, Aitzol Barañano eta Iurgi Aiesta automozioiko irakasleak joan ziren Morokora, eta, 2020an, ikasleakaz joateko urratsa eman zuten arren, COVID-19ak dena geldiarazi zuen.

elektriko guzti-guztiak aztertu behar izan dituzte, bereziki arreta berezia eskatzen duten transmisio- eta suspentsio-sistemak. Beste aldetik, lasterketak eskatzen dituen atontze-lan bereziei aurre egin behar izan diete, hala nola azpikoen babesak, takodun gupil bereziak, argiztapen sistema, bidaiari lekuko bantzaileak, eta abar...». Partaideak aukeratzeko lana ere ez da nolanahikoa izan, hasiera batean, froga dibertigarria eta erakargarria izan arren; «abenturaren inguruko hausnarketa egiten bada berehalaxe konturatzen zara ahuntzaren gaurdiko eztula ez dela, eta denak ez daudela prest joateko», azaldu du.

Hala ere, ikasleei ez zaie ilusioa falta, eta aurten talde bi osatu dituzte: Panda 4x4 batean Jose Libano Ibai Martinez bigarren mailako ikasleagaz joango da, eta beste Panda 4x2an Arkaitz Amezaga irakaslea Mikel Uriaga bigarren mailako ikasleagaz.

ENGLISH SUMMER PLAY-SCHOOL

English Summer Play-School txikienean ingelesez ikas eta praktika dezaten ikastaro trinkoa da. Hori lortzeko giro lasaia, dinamikoa eta dibertigarria sortzen dugu bertan.

Aurkezpena
English Summer Play-School txikienean ikas eta praktika dezaten ikastaro trinkoa da. Hori lortzeko giro lasaia, dinamikoa eta dibertigarria sortzen dugu bertan.

Nori zuzenduta
2 urtetik Lehen Hezkuntzako 6. mailara arteko ikasle euskaldunentzat.

Lekua eta datak
San Nikolas Ikastola (Algorta), uztailaren 1tik 30ra.

Ezaugarriak
• Astelehenetik ostirakera, 9:00etatik 13:30etara.
• Irakasle espezializatuak eta kualifikatuak.
• Tasa trinkoa (gehienek 15 ikaslekoak).
• Taldeen eta jardueren: esku-lanak, kirolak, antzerkia, abestiak, sukaldaritza, jolasak, zientzia, abentura...
• Ikus-entzunezko baliabideak eta ordenagailuak.
• Bakoitzaren ebaluazio bostena ikastaroaren amaieran.
• Ertortzeagatik diploma.
• Ikastaroan ikasitako abestien liburuko ikasle bakoitzarentzat opari.
• Asegurua.
• Ikastaroaren prezioa: 397,10€ (150eko deskontua anai-arrebei eta 15 euroko familia ugariari ikasleei).
• Jantoki eta haurtzaindagi zerbitzua 3 urtetik gora: 91,75€.
• Autobus zerbitzua: 78,00€ (ibilbidea eta ordutegia ekoiztaren amaieran jakinaraziko dira).
• Izena emateko epea: ekainaren 15a arte.

Hamilton Momas • www.hamiltonmomas.com • info@hamiltonmomas.com
C/Sigüra, 11 • 48600 SOPELA • Tel. 94 676 36 12

Lanbide-Heziketako Ikastetxe Integratua



Centro Integrado de Formación Profesional

ERDI ETA GOI-MAILAKO heziketa zikloak

ciclos formativos GRADO MEDIO Y SUPERIOR

2022-2023

PUERTAS ABIERTAS
MAIATZA / MAYO [2-11]
ATE IREKIAK

*Zure lanbidea
aukeratu!*

Tu futuro hoy!



**AUTOMATIZAZIO
ETA ROBOTIKA
INDUSTRIALA**
AUTOMATIZACIÓN
Y ROBÓTICA
INDUSTRIAL



**TELEKOMUNIKAZIO
INSTALAZIOAK**
INSTALACIONES
DE TELECOMUNI-
CACIONES



**KARROZERIA
ELEKTRO-
MEKANIKA**
CARROCERÍA
ELECTRO-
MECÁNICA



**FABRIKAZIO
MEKANIKOA**
FABRICACIÓN
MECÁNICA



**Haur
Hezkuntza**
Educación
Infantil



**Jarduera
fisikoak
eta kirolak**
Actividades
físicas
y deportivas



Osasungintza
Sanidad

ZATOZ ETA INFORMA ZAITEZ



VEN E INFORMATE

LAN
POLTSA
PROPIOA
Fp
EUSKADI
LANBIDE HEZIKETA
dual

BOLSA
DE TRABAJO
PROPIA

www.fadura.eus
944 06 90 00

GETXO BIZKAIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SALA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

LH Dualaren abantailak

Lanbide Heziketa Dualak ikaskuntza-prozesuak konbinatzen ditu enpresa eta ikastetxeetan, batzuen eta besteen arteko lankidetzaren bitartez.

Lan eginez ikasteak lan-merkatura sartzeko bidea errazten die proiektu Dualak ikasleei, eta, horretaz gain, kalitatezko lanpostuak ere sustatzen ditu. Horregatik, Lanbide Heziketa Dualaren helburua da ikasleek titulu bat lortzeko aukera izatea, ikastetxeen eta enpresaren arteko lankidetzan garatzen den ikaskuntza-prozesu baten bitartez. Izan ere, metodologia horri esker, produktuari eta ekoizpen-prozesuari garrantzia eman beharrean, ikaslearen jakintza eta gaitasuna lehenesten dira.

Horretaz gain, Lanbide Heziketa Duala egiten duten ikasleek enpresetan egiten dituzten formakuntza-prozesuak lotura estua dute heziketa-zikloko lanbide profilagaz eta aukeratutako espezializazioagaz; horrenbestez, ikasten duten bitartean, enpresan egiten dituzten lanek produkzio-eraketa ez ezik, ikaskuntza bera ahalbidetzen dute. Halaber, hezkuntza metodo hori aukeratzen dutenek beraien etorkizunerako oso baliagarriak izango diren bestelako zeharkako gaitasun batzuk ere bereganatzen dituzte.

LH DUALAREN ABANTAILAK. Lanbide Heziketa Dualean prestatzen diren langile kualifikatuak Euskal Herriko enpresen ekoizpen-sarera egokitzen dira, horrek enpresen lehiakortasuna hobetzen du, bai beharginek bai enpresek ere elkar hobeto ezagutzen baitute. Gainera, esperientzia horrek lantegien belaunaldi-erleboa errazten du.



Mailak

Lanbide-familia bakoitzaren barruan, maila hauek daude: Oinarrizko Lanbide Heziketa, Erdi-mailako Heziketa Zikloak eta Goi-mailako Heziketa Zikloak

Ikasleek benetako lan-egoeretan ikasten dute, eta, horri esker, jasotzen duten lan-esperientzia biderkatu egiten da. Gainera, beraien lanaldiengatik ordainsari proportzionalak ere jasotzen dituzte, kontratuaren edo hitzarmenaren arabera, eta Gizarte Segurantzaren ere kotizatzen hasten dira.

Bestalde, ikastetxeentzako ere mesedegaria den ekimena da, ikasleen ekarpenei esker lan-merkaturako beharrei aurre egiteko informazio ezin hobea lortzeaz gain, enpresen eta ikastetxeen arteko lotura indartzen baita. Gainera, enpresen Erantzun Sozial Korporatiboko politikak ere laguntzen ditu.

LH DUALAREN MODELOAK. Mota honetako prestakuntzak bi motatako ereduak proposatzen ditu. Alde batetik, bi urteko modalitatea, non ikasleek lehen ikasturtea ikastetxean egiten dute, eta bigarrenetan ikastetxean jarraitzeaz gain, enpresetan ere hasten dira lanean. Modalitate honek 2.400 eta 2.800 orduko arteko iraupena du osotara. Horren helburu nagusia da ikasleek zikloan barneratzen dituzten gaitasunak indartzea. Eta beste aldetik, hiru urteko modalitatea; horretan, ekoizpen-prozesu konplexuak direla-eta enpresek dituzten beharrei behar bezala erantzuna emango dieten espezializazioa eskuratzea da jomuga; horretarako, ikasleek hirugarren urte bat egiten dute ikastetxean eta enpresan, eta osotara 3.400 eta 4.700 ordu arteko iraupena dute.



Biharko mundua **euskaraz** • Biharko mundu **berdinazalea** • Biharko mundu **jasangarria**

Biharko mundua gaur eta hemen



ANDER DEVNA
IKASTOLA

SOPELA | 946 76 02 66 | info@anderdeuna.eus | www.anderdeunaikastola.eus



POLITEKNIKA IKASTEGIA
TXORIERRI
S.COOP.

BATXILERGOA ETA LANBIDE HEZIKETA
BACHILLERATO Y FORMACIÓN PROFESIONAL

HEGOAN



egiteko aukerak



Eman izena!

www.txorierri.net



HETEL

Lanbide Heziketarako prestatzen

Maiatzaren 9tik 27ra bitartean egongo da zabalik 2022-2023 ikasturtean Lanbide Heziketan erregimen ezberdinetan izena emateko opea.

Guztira, lan-mundura bideratutako 170 titulu baino gehiago eskaintzen dira gaur egun EAEn. Lanbide Heziketaren bitartez, 26 lanbide-arlotan banatutako eskaintza zabalak testuinguru ekonomiko edo teknologiko jakinakaz du lotura.

Hurrengo ikasturtean, arlo horietako batean Lanbide Heziketa ikasi gura dutenentzako izen-ematea maiatzaren 9tik 27ra bitartean egongo da zabalik, egun biak barne. Tarte horretan, aurrez aurreko erregimenean, eskaintza osoa eta eskaintza partziala onartzeko eta matrikulatzeko izapideak egongo dira zabalik. Eskabideak eta dokumentazioa aukeratutako ikastetxean bertan

URRUTITIK ERE

Goi- eta Erdi-mailako heziketa zikloetako ikasketak urrunetik egin gura dituzten ikasleek epe berean aurkeztu beharko dituzte eskabideak aukeratutako zentroetan.

aurkeztu beharko da, bakoitzaren idazkari-tza zabalik dagoen ordutegian.

Eskatzaileei espediente akademikoa edota bestelako dokumentazioa eskatzen bazaie, ekainaren 30era arte izango dute tarte horiek aurkezteko. Horren ostean, behin behineko zerrendak uztailaren 8an argitaratuko dituzte, eta erreklamazio-epea amaitutakoan, behin betiko zerrendak uztailaren 14an emango dituzte jakitera. Bestalde, ikastetxe berean maila errepikatzen duten edo 1. mailatik 2. mailara pasatzen diren ikasleek ekainaren 13tik uztailaren 1era bitartean, biak barne, egin beharko dute matrikula ikastetxean bertan.

Prozesuan onartzen dituzten ikasleek eta horretan parte hartu behar ez dutenek egutegian zehaztutako egunetan egin beharko dute matrikula. Horrela ez bada, esleitutako plaza-ri uko egin diotela ulertuko du Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak.



Udan ere, zure bidelagun

aek
euskara praktikoa

UDAKO IKASTARO TRINKOAK ETA BARNETEGIAK
A1, A2, B1, B2 eta C1 mailak
MATRIKULA EPEA
UZTAILEKO IKASTAROAK: ekain osoan
IRAILEKO IKASTAROAK: ekain osoan eta uztailaren 30era arte
Informazio gehiago nahi baduzu:

Leioa: 944 6460 63 | lamia@aek.eus | Getxo: 944 304 734 | lauaxeta@aek.eus
Plentzia: 946 77 36 07 | jentilbaso@aek.eus | Gorkiz: 946 77 36 46 | jentilbaso@aek.eus
www.facebook.com/UribeKostako-AEK | www.aek.eus/blogak/uribekosta/

673 200 100 / 946 464 000

www.aek.eus

Revertt

«'Los negative Approach vascos' izendatu gaituzte»

TESTUA: ASIER BARRUETABEÑA RIVALLO

ARGAZKIA: REVERTT ▶

Kolpeka, Sta. Cruz eta Cuero taldeek fedea galtzearek geneukano berriro sinisterra eraman gaituzte; gazte eta ez hain gazteen Old School Hardcore-aren belaunaldi berria dira. Indarra, mezu zuzenak eta aurrez aurreko laburrekin eszena hankaz gora jartzera heldu berri diren taldeak ditugu gure artean, besteak beste: Revertt. Terror talde kaliforniarrak esango lukeen moduan: «*Keepers of the faith*».

Nortzuk zarete Revertt? Bermeotik gatozen lau lagunek osatzen dugun taldea gara. Horren hasiera 2016an ipini liteke; hasiera batean, punk eta hardcore-aren hasierako influentziak oso lotuta egoten zen gure estiloa, geure kanta sortuz baina Necros, Reagan Youth, Minor Threat, Negative Approach eta halako taldeen influentziagaz zati handi batean. Geure ingurukoek ere eragin zuten musika egiteko estiloan, Papel Albal, Powerflip eta beste talde bermeotarrak batez ere. Maketatxo bat atera genuen orain urte bi auto-editatuta eta XcementerioX zigiluagaz. Kontzertu batzuk eman ostean Euskal Herritik, Bermeo Skinhead Hardcore EPa irten zen Mendeku Diskak zigiluak editatuta. Kaosa Euskal Herrian eta Chaos in Basque Country-n ere egon gara.

Oso hardcore berezia egiten duzue. Nondik dator ideia? Geure hardcoreak eraldaketa bat daukala uste dugu. Hasiera batean, punketik oso hurbila edo punk arina zen; gaur egun, eta epe ertainera irtengo diren kanta berriek, estilo gogor, astun eta ilunagora joango da. Hori bai, era askotan definitu gaituzte: «Los Negative Approach vascos» garelako esatek, oi!-hardcore egiten dugulakoan, No Time edo 86 Mentality taldeen antzekoak garelako esatera. Guk, konposatzerakoan, ez dugu ezertan pentsatzen; irteten dena irteten da, beste barik.

Abestiak zuzenean jotzen agertzen zareten bideo bat argitaratuta duzue, oso toke berezikoa eta zuri-beltzean... Bai, bateria-jole Bidaren ideia izan zen. Taldean sartu berria



Hurrengo LP-a

Uneotan konposatze-lanetan dabilta LP baterako kanta egiten. Diotenez, aurreratuta dabilta, baina formatu fisikoa atera arte «denboratxo» pasako da; «hori bai, gure EPen desberdina izango dela aurreratzen dugu. Euskara hutsean izango da, eta seguru gaude bat baino gehiago identifikatuta sentituko dela, letra eta soinu ilun eta gogorrako honetan».

zen, eta, kontzertuak eman ezinik egon garen, geure EP-a aurkezteko eta Bida ere estreinatzeko aukera izan zen. Gure lagun-tekniko Unairi deitu eta berak grabatu gintuen arrastu batean, lokalean bertan. Uste dugu geure punturik indartsuena zuzenekoak direla, eta horrela ematen du.

Kontzertuetan oso zuzeneko azkar eta gogorra duzue, eta horien iraupena oso laburra izaten da... Ona eta laburra, birritan ona esaten den legez. Gogortasuna eta potentzia denbora luzean mantentzea ez doaz batera. Hori Poison Idea edo Cro Mags taldeek bakarrik egin ahal zuten euren sasoian. Gure asmoa jendeari hagineta ukabilkada bat ematea bezala da, luzerako akorduan izango duena.

Bermeotarrak izanda, nondik etorri zaizkizue halako influentziak? Harritu egiten dio jendeari honek, eta ez zara lehenengoa galdera egiten. Gure aurretik ere egon dira taldeak, esan lei estilo berdinekoak ez izatea, baina musika egin duten eta egiten duten taldeak badaude Bermeon. Gainera, Bermeoko kapillera ere etorri dira talde oso indartsuak, Arms Race edo PMS84 modukoak. Hori bai, euskaraz eta, gainera, euskalki bermeotarrez hardcorea egin duen lehenengoak bagara. ◀

Esteban Gaubeka, Iñaki Urrutia eta Jagoba Madariaga Lemoizko pala jokalaria

Gaubeka: «Oso ederra da herrian palako harrobia dagoela ikustea»

Lemoizko hiru belaunaldiko jokalaria ari dira palako Bizkaia Open Internacional 2022 Txapelketan lehiatzen: Esteban Gaubeka, Iñaki Urrutia eta Jagoba Madariaga.

ANDER ZARRAGA ►

Ez da kasualitatea Lemoizen hiru belaunaldi ezberdinetako pala jokalaria lehia berean aritzea. Armintza auzoan frontoiagaz duten harreman berezi hori berezkoa dela dio hainbat txapela irabazi dituen Esteban Gaubekak: «Herri txikia gara, eta ez dago aukera askorik kirola egiteko; beraz, frontoia beti izan da gazteentzako topalekua». Iñaki Urrutia ere pala-jokalaria profesionala da, eta bat dator beragaz: «Beti etorri izan gara frontoira edozertara jokatzera; handiak egin garenean erreferente moduan ikusi ditugu hemen zeuden pilotariak».

Jagoba Madariaga hiruretatik gazteena da, eta oraindino afizionatueta jokatzeko duen arren, aurtengo profesionalakaz debutatzeko aukera izan du nazioarteko Bizkaiko Opean. Berarentzako, «amets bat bezalakoa da Gaubekaren maila berean jokatzeko», txikitatik ikusi baitu jokatzeko, eta Urrutia bere entrenatzailea izan da; hala, betidanik ikusi dituen erreferenteak ari da jokatzeko orain.

Ekainaren 11ra bitartean hainbat partida jokatu dituzte, Urrutiak eta Madariagak, alde batetik, eta Estebanek eta Del Riok, bestetik, guztira sei bikotek lehiatuko duten ligaxkan. Tartean, Armintzako frontoian jokatu zuten apirilaren 16an, eta Plentzian eta Sopelan ere arituko dira; edonola ere, txapelketako partida gehienak Bilboko Bizkaia frontoian izango dira.

Gaubekak adierazi duenez, «daborduko, 15 urte inguru daramatzat honetan, eta oraindik lehiakortasun hori mantentzen dut. Beraz, borrokatzen jarraituko dut». Bere lehiakideak



Gaubekak, Madariagak eta Urrutiak elkarrengaz entrenatzen dute Armintzako frontoian.

Zergatik pala eta ez beste kirol bat?

Gaubeka: «Ez dauka arrazoi zehatzik; hasieratik hona zetorren jendea palagaz jokatzeko hasi zen, eta ordutik guk ere horretan jarraitu dugu»

Herriko zaleak

Urrutia: «Etxean jokatzeko dugunean oso giro ona egon ohi da frontoian. Jendea gehiago kostatzen zaio kanpora mugitzea, baina finalek etortzen dira»

gogor datozen arren, oraindino forma onean sentitzen dela azpimarratu du armintzarrak, eta Opena oso ondo hasi ez arren, aukerak dituela uste du. Gaineratu duenez, «oso polita da ikustea belaunaldi berriek ere palara jokatzeko dutela; horietako asko entrenatu ditugu, eta harro egoteko modu zerbait da».

Palaren egoeraz galdetuta, Gaubekak deitoratu du egoera ez dela oso ona: «Diru-laguntzakaz mantentzen da, ez baitago baliabide propioak dituen enpresarik, eta frontoia betetzea ez da erraza». Dioenez, erabateko profesionalak izateko bultzada bat falta da, komunikabideen laguntza, besteak beste.

Madariagak umeak ere entrenatzen ditu eta, bere ustez, gero eta gehiago ari dira palara jokatzeko, askok nagusitzean utzi arren: «Hainbat bikote ditugu, eta txapelketetan ari gara parte hartzen». 20-30 ume daude une honetan kategoriatan ezberdinetan, «herri txikia garelako kontutan izanda, hori asko da». ◀

Aintzane Gamboa, Ainhoa Atxirika eta Nerea Bengoa Bizkerre Futbol Taldeko jokalariaik

«Guk ere ikuskizuna eman dezakegula erakutsi dugu»

Bizkerre Futbol Taldeko neskek Liga Nazionaleko bigarren taldeko txapeldunak izendatu dira. Horri esker, kategoriaz igotzeaz gain, taldean jokatzen duten hainbat neskarentzako eredu ere dira.

ANDER ZARRAGA ►

Denboraldia amaitzeko oraindino lau partida falta zirela, Bizkerre Futbol Taldea Espainiako Liga Nazionaleko bigarren taldeko txapelketa irabazi zuen. «Denboraldia hasi genuenean ez genuen espero; ez genuen horrelako ezer planteatu, baina gutxika lortu dugu», adierazi du Aintzane Gamboa taldeko kapitainak.

Bere aldetik, Nerea Bengoa leioaztarrak nabarmendu du aurten oso talde indartsuak izan dituztela aurrean: «Athletic, Real Sociedad, Racing edota Osasuna bezalako taldeen filialen aurka jokatu dugu, eta Añorga bezalako aurkari gogorak ere izan ditugu». Hala ere, lortutako emaitzek taldearen lan bikaina islatzen dute: 26 partidutik, hiru berdindu dituzte, eta bakarra galdu; gainontzeko guztiak irabazi dituzte. Garaipen horietako gol eta asistentzia askoren egilea izan da Ainhoa Atxirika gorliztarra: «Partida gehienak azken momentuan irabazi ditugu, baina hori jokatzeo modua aldatu dugulako izan da».

Kapitainak azpimarratu duenez, talde trinkoa osatu dute aurten, eta egon den giro onak ere asko lagundu die. Horretaz gain, arrakasta horren arduraduna ere da Iñigo Juaristi entrenatzailea. «Eskarmentu handiko teknikoa da, hainbat taldetan egon dena», dio Bengoak. Aurreko urteetan ez-bezala, aurten presio gutxiagok jokatu dutela azpimarratu du Gamboak: «Lehen, golaren bila zorutzen ginen, baina aurten ez da horrela izan; gehiago mugitu dugu baloia, eta pazientzia gehiagorekin jokatu dugu». Horretaz gain, Vanesa Rodriguez bigarren entrenatzailearen lana ere azpimarratu gura izan du Bengoak: «Beste jokalarik baten modukoa da, asko laguntzen gaitu, giro ona sortzen du eta, batzuetan, entrena-



Atxirika, Gamboa eta Bengoa Bizkerre Futbol Taldeko Senior A taldeko jokalariaik dira.

22

partidu irabazi dituzte aurten Bizkerreko neskek Liga Nazionaleko Lehen Mailan.

20

urte inguru dituzte taldea osatzen duten jokalarik gehienek; beraz, oso talde gaztea osatu dute.

200

neska inguruk jokatzen dute Bizkerre Futbol Taldeak dituen kategoria ezberdinetan.

15

talde ditu Bizkerre Futbol Taldeak adin eta maila ezberdinetan banatuta.

tzailearen eta jokalarien arteko bitartekari-lanak egiten ditu».

Datorren urtean Bigarren Maila eta Liga Nazionalaren artean sortuko duten kategoria berria arituko dira Bizkerrekoak. «Espainia erdibituko bazenu, iparraldean geratzen diren taldeen artean egongo gara gu, Real Madrid bezalako filialen aurka, hain zuen», azaldu du Atxirikak. Hala ere, horren aurretik, Emakumezkoen Euskadiko Kopa jokatuko dute maiatzaren 14 eta 15ean.

Diotenez, geroz eta jende gehiagoren babesa jasotzen ari dira, eta, gutxika, baliabideak ere lortzen doaz, «behintzat bokata ematen digute; lehen, guk eraman behar genuen dena», dio Bengoak. Atxirika ere bat dator beragaz, eta azaldu du liga irabazi zutenean zela osoo betetzea lortu zutela: «Aurten jende gehiago etorri dela nabaritu dugu, boom baten modukoa izan da». Izan ere, Bizkerrek futbolekin jokatu gura duten hainbat neskaren aglutinatzailea bihurtu da, eta jokalarientzako oso pozgarria da horrelako harrobi bat dagoela ikustea. «Lehen, mutikalaz jolastu behar genuen eta, batzuetan, gauza desatseginak entzuten genituen, baina orain ezberdina da, nahiz eta oraindik gauza asko aldatu behar diren», dio kapitainak. Atxirikak ere azpimarratu du mentalitatea aldatzen doala, baina uste du oraindino ikusgarritasun gehiago eman behar zaiola emakumeen futbolari. ◀

Istorio txiki bat mundu mailan

NEREA FALAGAN MARTIN Zinemagilea



Carla Simon zuzendariaren *Alcarràs* filma estreinatu berri da. Denbora generamatzen katalanaren berririk izan gabe, baina otsailean sekulako notizia jaso genuen. Bada, Urrezko Hartza irabazi zuen Berlinale-an. *Estiu 1993* filma oso ondo mugitu zen. «Zaila da hori gainditzea. Orain zer dator? Momentu gogorra izan nuen proiektu berriarekin hasi nintzenean. Baina, Berlinako harreraren ostean, askok esan zidaten: 'Zelako presioa izango duzu hurrengo filmean'. Egia esan, ez. Zera sentitzen dut: 'Aurreko lanaren arrakastaren askatasuna'».

Landa-guneko bizimoduaren gainbehera erretratatzen da Simonen bigarren lanean. Lleida da testuingurua, mertxikondoen landa bat eta familia bat. Aurrekoan bezala, zuzendariak casting berezi bat egin zuen, non *Alcarràs* inguruko pertsonak aukeratu zituen. Ez dira aktore profesionalak, aldiz, denek Lleida inguruko katalanaz hitz egiten dute, «horrela izan behar zuelako».

Maiz pentsatu dugu hizkuntz txiki batean filmatzeak oztupoak dituela, ez duela mundu mailan ikusgarritasunik. Guztiz erratuta gaude, ordea; istorio batek hunkitzen bagaitu, berdin dio hizkuntza zein jatorria. Eta Simonen zinema errealistak, kasu, ez du inor axolagabe uzten. Sentsibiltate kontua, akaso?

Elkartasuna josiz

ZAPUSTU Joko-aretoen aurkako plataforma



Duela bederatzi hilabete, Espainiako Polizia Nazionalaren operazio baten ondorioz, prozesu judizial batean murgildu ginenean, Zapustu sortzea erabaki genuen. Hasieratik adierazi genuen gure jardunak bi helbururen baitan pibotatu zutela: jokoaren gaitzaren sozializazioa eta prozesu judizialari aurre egitea. Hala ere, zintzoki hitz eginda, zaila zaigu Zapustu jazarpenik gabe irudikatzea.

Jokoa, dinamika kapitalisten erreprodukzioarako funtsezkoa den heinean, horren aurka egin behar dela sinesten dugu, baina zigorren aurreikuspen latzek gure indarrak ondo bideratzera behartu gaituzte. Bide horretan, borrokarako indarrak mugatu behar izan ditugu, eta amorrutik baiezatu dugu hau, jasotako errepresioari borroka erantzun nahi baikenion.

Egoera hau aurreikusita genuen, gure bizitzak era duinean garatzea ezinezkoa bihurtzen duen sistemak, isunez, atxilotetaz, muntai polizialez eta biolentziaz jositako errepresioaren sare erraldoia baliatzen baitu bere aurka agertzen den edonor desagerrarazteko. Horren kontziente gara, eta sare horren arriskupean gaudenon artean beste sare bat lotzearen garrantzia sinesten dugu. Elkartasun sare indartsuago bat sortuz soilik lortu dezakegula errepresioaren makinartik ihes egitea. Elkarlotu gaitzen!

Horoskopoa



Ura
(Abenduak 21-Urtarrilak 19)

Zure itxuraz arduratuta zaude... Lan kontuetan horretan duzun arretaren erdia jarriko bazenu, gauzak beste era batera aterako litzaizkizuke.



Otsoa
(Urtarrilak 20-Otsailak 18)

Bizitzak hamaika bueltan ematen ditu, eta zuk denboran atzera egingo bazenu bezala ikusten duzu zure burua orain.



Adarra
(Otsailak 19-Martxoak 20)

Bizitza sentimentalean ahaleginak egiten saiatuko zara gauzak bere onera itzul daitezen, baina agian beranduegi da.



Aitzurra
(Martxoak 21-Apirilak 19)

Ez duzu aldatzeko asmorik? Bada garaia helduago egiten hasteko. Guztiak, onerako, harrituko dira, eta zu hobeto sentituko zara.



Hostoa
(Apirilak 20-Maiatzak 19)

Udaberriak zoratu egin zaitu, odola irakiten daukazu eta lasaitu beharko zenuke. Maitasun kontuetan ezustekoa izango duzu, eutsi!



Eguzkia
(Maiatzak 20-Ekainak 18)

Lan arloan erabakiak hartu beharko dituzu, baina ez larritu, zurekiko duzun segurtasun horrek asko lagunduko dizu eta!



Garia
(Ekainak 19-Uztailak 18)

Bihotz onegia edukitzeak kalte handia egingo dizu, baina maite duzun pertsona batek lagunduko zaitu.



Lastoa
(Uztailak 19-Abuztuak 17)

Zure buruari gehiegi exijitzen diozu, eta horrek presiopean egotera bultzatzen zaitu arlo askotan halabeharrez. Hartu atsedena.



Iratzea
(Abuztuak 18-Irailak 16)

Familia arteko harremana sakonki aztertu eta une txarra jasaten ari den kide horrentzat laguntza handikoa izango zara.



Meta
(Irailak 17-Urriak 16)

Nahiko arduragabe zabilta. Lanpetuta zaudelako aitzakiak ez ditu honezkero familia eta lagunak konbentzitzeko.



Hazia
(Urriak 17-Azaroak 15)

Nahiko zeurekoi zabilta aspaldion, eta horrek familiagaz arazoak ekarriko dizkizu; denbora gehiago igaro beharko zenuke etxean.



Negua
(Azaroak 16-Abenduak 20)

Gazte sentitzen zara, baina kontuz, ilusioa baino ez da; urteek ez dute barkatzen, eta batzuk badituzu atzean.



Lorez lore

Lorailean sartu gara. Sasoion izadian landare-zuhaitzak **loretan** ditugu. **Lore baratzeak** ere liliz beterik ageri zaizkigu. Bide ondoko **lore alorretan** ere lorea dugu nagusi. Eta zeresanik ez balkoietako **loreontzi** ugarietan. Dena lorea! Airean dabilen **lore hauts** gogaikarria gorabehera, ederra dugu lorea, bai eta edertasun iturri ere. Antzinatik antzeman genion euskaldunok lorearen ederrari. Loreak udan ihintza bezala maite zuen dama gazte bat Bilintzek. «Arrosa **lore-lore** denbora denean, gazteak hankak arin soinu denean» dio Nafarroako kantu zaharrak. Birjinitatearen sinbolo gisa erabili zuen lorea Lauaxetak *Zelayan* olerkian: «Ene maitea, zelaiko galpidea! Loretan lore zenak galdu dau berea». Euskal **Lore Jokoak** ere ez ditugu atzo goizekoak, lehendabizikoak 1851n antolatu baitzituen Anton Abadia euskal kulturaren eragile handiak Lapurdiko Urruña herrian. Hegoaldean 1879an egin ziren lehenengoz, Elizondon. Uribe Kostari gagozkiola, Getxon 1931n egin zirelako dion Jean Louis Davant zuberotarrak, 2012an Euskaltzaindiaren bitartez argitaratu zuen liburuan.

Lore berba latinetik dator, *florem* hitzetik. Euskal Herriko mendebaldean lora. Zuberoan lili. Pertsona izena ere bada: Lore, Lorea. Gure amaren garaiko lagun batek Babalora zuen ezizena, eder-ederra ei zelako. Futbolearen baloia **loratu** egiten dute. Batzuk bizitzaren **lorea** joaten zaizkigu. Oso gogoko dugunari **loreak** bota ohi dizkiogu. Hitz emankorra dugu lorea elkarketan: **lore begi**, **lore hosto**, **lore sorta**... Loretxoa abestia entzun ez duenik ez dagoke Euskal Herrian. Kantatu ere egiten dugu sarri, Benitoren bertsioan hasi eta Exkixukoan amaitu. Maite baititugu loreak mendian. Zein kamisetan. ◀

Berba azoka

Lorail

Loreen hila, maiatza.

Loretan

Loreak agerian, loreak erakutsiz.

Lore baratze

Lorategia.

Lore alor

Loredun sailtxoa, parterrea.

Loreontzi

Lore apaingarriak moztuta zein landatuta edukitzeko ontzia.

Lore hauts

Polena.

Lore-lore

Lorez beterik.

Lore Jokoak

Literatura sustatzeko egiten den lehiaketa.

Loratu

Hemen, baloia harrotu.

Lorean

Hemen, onenean.

Lore

Hemen, konplimendua.

Lore begi

Kuskua, pipila, kapulua.

Lore hosto

Petaloa.

Lore sorta

Lore multzoa, buketa, floka.



Argazkiak eginda, orain edizioa


Argazkiak errebelatzea eta editatzea argazkilaritzaren parte oso garrantzitsua da. Hemen, tresna basiko batzuk aipatuko dizkizuegu, zuek gehiago ikasteko; proba itzazue tresna hauek eta informazio gehiago bilatu.

Errebelatua

Edizioa esaten dugunean, askotan, errebelatua esan nahi dugu. Argazkiak RAW formatuan egiten ditugunean, negatibo analogiko bat bezalakoa da daukagun artxiboa, eta negatibo hori errebelatu behar dugu programa batekin. Gure adibideetan Photoshop erabiliko dugu, baina asko daude, baita software librea diren programak ere; bakoitzak gustukoena erabil dezala.


RAW edo JPG

Ikastaroaren hasieran RAW eta JPG formatuan argazkiak egin daitezkeela komentatu genuen, eta diferentzia da batzuk aurrez editatutako fitxategiak direla (JPG) eta besteak negatiboak direla (RAW). Horregatik, JPG fitxategiak zuzenean ireki daitezke edozein editoretan, eta ebaki eta haiekin lan egin. Baina RAWak errebelatu beharreko fitxategiak dira, editatzen hasi aurretik doitu beharrekoak. RAW fitxategien abantailak dira askoz gehiago doitu ditzakezula argiztapena, koloreak eta kontrastea modu ez hain oldarkorrean, argazkian kalitatea galdu gabe.




Enkoadraketa hobetu

Garrantzitsua da argazkian enkoadraketa bat egiten dugunean atera nahi dugunarekin bat etortzea. Baina, batzuetan, argazki hori berriz enkoadratu beharko dugu, edo enkoadraketa findu. Eta hori egokitzea nahiko erraza da ebakitzeko tresnarekin.



Ebakitzeko tresnaz gain, irudia zuzentzeko aukera dago. Sinboloa nibel bat bezalakoa da. Tresna honekin, bi erreferentzia-puntu horizontal edo bertikal markatu ahal izango ditugu, eta, horrela, argazkia orekatuko dugu, zutiarazten.




Geruzak

Photoshop-en, geruzak erabiltzen ikastea garrantzitsua da, zonaka editatzeko eta edizio zehatzagoak egiteko aukera emango baitugu.

Oso eremu zehatzetan, koloreak, kontrastea, argiztapena, desaturatzea edo beharrezkoa ikusten duguna doitu ahal izango dugu. Gainera, geruzen opakutasuna alda daiteke gero, edizio osoa hobeto orekatzeko.

Garrantzitsua da geruzekin lan egiten dugunean, modu leunegitea, ertzak lausotuz, argazkian gauza arrarorik ikus ez dadin. Horretarako, modu ezberdinak daude, baina errezena lausotze Gaussianoarekin egitea da.



Edizioa bai, baina orekatua

Argazkiak editatzea beharrezkoa da askotan, eta tonuak, argi-zonak edo koloreak doitzeko normala da. Baina beti kontuz ibili behar dugu edizioarekin ez pasatzeko, askotan, argazkia zegoena baino okerrago eta artifizialago uzten baitugu. Argazkia errebelatu eta editatu behar da, baina beti beharrezkoa dena eta modu orekatu batean egiten saiatu. Edizioa oso zabala da, beraz, gehiago ikasi nahi baduzue, proba eza-zue eta tutorialak bilatu, ikasteko modu onena baita.

Ezaugarri nagusiak

Hona hemen RAW argazki bat errebelatzerakoan agertuko zaizkigun tresnak. Programaren arabera banaketa ezberdina edukiko dute, baina, orokorrean, hauek dira erabilienak:

Histograma. Histograman irudi baten argiaren balioak irudikatzen dira. Eskala tonal osoa aprobetxatzen duen irudi batek, histograma zabaleran betetzen duena, irudi orekatu bat adierazten dute. Ezkerrean moko bat duten histogramek itzalen murrizketa adierazten dute; eskuinean moko bat duten histogramek, aldiz, argiztapenen murrizketa adierazten dute. Histogramak hiru kolore-geruzaz osatuta daude, eta kanal gorria, berdea eta urdina irudikatzen dituzte.

Profila. Kamera-profilak kamerak sortutako artxioboaren informazio gordinaren interpretazioak dira, *preset* bat bezala. Gomendatzen dut neutroena den baten bat erabiltzea, errebelatua guk egiteko gure erara.

WB edo zurien balantzea. Zurien balantzea objektu zuriak argazki batean kolore zuriz ikustea eragiten duen funtzioa da, argiaren koloreak duen eragina konpentsatzen baitu.

Esposizioa. Irudi osoaren argian eragiten du.

Kontrastea. Argazki osoari kontrastea gehitzen dio.

Argitasunak. Argitasun zonaldeetako detaileak berreskuratzeko balio du; erretako puntuak ezin dira berreskuratu, baina zonalde argitsuenen detaileak bai.

Itzalak. Itzaletako detaileak berreskuratzeko balio du. Ezaugarri hau eta argitasuna kontrolatu beharko dugu, pasatuz gero oso artifiziaia geratu ahal delako argazkiaren argiztapena.

Puntu zuriak. Puntu zuriena zehazteko balio du, ALT tekla sakatuta mantentzen badugu, ikusiko dugu zer parte erretzen ari garen.

Puntu beltzak. Puntu beltzena zehazteko balio du, ALT tekla sakatuta mantentzen badugu, ikusiko dugu zer parte guztiz beltz uzten ari garen.

Testura. Tonu medioen kontrastea aplikatuko du definizio gehiago duten irudiaren zatietan.

Argitasuna. Tonu medioen kontrastea aplikatuko du irudi osoan.

Lainoa kendu. Puntu finko batean fokua egingo du.

Intentsitatea. Saturazio gutxiago duten koloreen intentsitatea indartzen du, kolorea konpentsatuz. Intentsitatea erabiltzen badugu, irudien kolorea suabeago kontrolatuko dugu, pasatu barik.

Saturazioa. Kolore guztien intentsitatea indartzen du, hortaz, nagusi diren kolore biziak, askoz gehiago indartuko dira.



Ekainean:
Argazki-lehiaketa dator!


Hirukira olgetan

© GARBIÑE UBEDA

SOLUZIOAK:



APIRILEKO
SOLUZIOAK




Irudi engainagarriak

1etik 10era zenbatuta dauden zati hauetatik erdiak engainagarriak dira, hau da, ez daude irudi nagusitik hartuta. Bereiz itzazu onak eta engainagarriak.


Zenbat?

Bide batez, zenbat saguzar ikusten dituzu irudi handian?



Zein da zein?

Txori guztiei 'txori' esatea ez da oso zehatza, ezta? Lotu txori bakoitzari dagokion izena.



Hizki-marrazki

Jarri marrazki bakoitzari dagokion hizkia eta zer dioten jakingo duzu.

ALFABETO A										
										
A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	
										
K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	
										
U	V	W	X	Z	.	:	,	?	!	

MAIATZAK 19 - 20 - 21 - 22 MAYO 2022



UmORe AZOKA

XXII FERIA DE ARTISTAS CALLEJEROS DE LEIOA



hirukalagunen txokoa

Sari ederrak eskura!

Zozketa

EHZ jaialdirako sarrerak

Uztailaren 1etik 3ra bitartean Irisarri ospatuko duten musika-festibal mundialerako sarrera bikoitz bat daukagu zozkatzeko. Zuretzat gura duzu? Bada, zeren zain zaude?

Zozketan parte hartu gura baduzu, ekainaren 1a (eguztina) baino lehenago bidali zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona: hiruka@hiruka.eus; edo bete Zozketak ataleko formularioa.



Zozketa

Martín Zalakain saioa

Dantza, jolasa, musika eta kantua batzen dira gure kultura herrikoiaaren ikuspegi berria proposatzen duen lan honetan. Saioa maiatzaren 15ean izango da, Muxikebarrin, 19:00etan.

Zozketan parte hartu gura baduzu, maiatzaren 11 (eguztina) baino lehenago bidali zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona: hiruka@hiruka.eus; edo bete Zozketak ataleko formularioa.



Zozketa

Maitasuna liburua

Ibaizabal argitaletxeari esker, 3 urtetik gorako umeentzako liburu eder hau zozkatuko dugu HIRUKAlagunen artean. Zurea izatea gura duzu? Bada, eman izena!

Zozketan parte hartu gura baduzu, maiatzaren 27a (eguztina) baino lehenago bidali zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona: hiruka@hiruka.eus; edo bete Zozketak ataleko formularioa.



Zelan egin HIRUKAlagun?

Webgunean: hiruka.eus/harpidetza/laguna

Idatziz: hirukakoop@hiruka.eus

Deituz: 944 911 337 • 688 812 368

Urtean 35 euroren truke, Uribe Kostako euskarazko komunikazio-taldearen bultzatzailea eta partaidea izango zara.



GETXO

EZAGUTZEKO

TOPONIMIA

IBILBIDEAK

1
Apirilak 28; Ekainak 1;
ROMO

18:30
Distantzia: 1.900 m.
Denbora: 2:00-2:30
Irteera: Ibaiondo x
Errekagane kaleak

3
Maiatzak 7
ANDRA MARI
LABURRA

18:30
Distantzia: 1.900 m.
Denbora: 2:00-2:30
Irteera: Andra Mariko eliza

2
Maiatzak 3
NEGURI

18:30
Distantzia: 1.800 m.
Denbora: 2:00-2:30
Irteera: Karmengo eliza

4
Maiatzak 10
AREETA

18:30
Distantzia: 1.900 m.
Denbora: 2:00
Irteera: Bizkaia zubia

5
Maiatzak 14
ANDRA MARI
Kostaldea

11:00
Distantzia: 6.700 m.
Denbora: 3:00-3:30
Irteera: Jaigunean

7
Maiatzak 20
PORTU ZAHARRA
BERTSOTAN

20:00
Distantzia: 500 m.
Denbora: 2:00-2:30
Irteera: Basagolti x San Nikolas kaleak

9
Ekainak 7
PUNTA BEGOÑA

18:00
Denbora: 2:00
Irteera: Galerietako atean

11
Ekainak 14
ALANGO
Kostaldea

18:30
Distantzia: 1.000 m.
Denbora: 1:30-2:00
Irteera: Satistegi plaza

6
Maiatzak 17;
Ekainak 18;
ALGORTA
(Satistegi - Usategi)

18:30
Distantzia: 1.000 m.
Denbora: 2:00
Irteera: Satistegi plaza

8
Ekainak 4
FADURA -
HEZEGUNEAK
Baserri auzoa

10:00
Distantzia: 4.500 m.
Denbora: 3:00-3:30
Irteera: Fadura kiroldegia

10
Ekainak 9
PORTU
ZAHARRA
San Nikolas Kaletik
Portu Zaharrera

18:30
Distantzia: 500 m.
Denbora: 2:00-2:30
Irteera: Basagolti x
San Nikolas kaleak

Hemen info
gehiago:



Izena emateko:

688 635 350. Bulego orduetan.
getxo.toponimia@gmail.com

